**Arkada Social**
Aretoa bete zuten agur-kontzertuan
KULTURA, 22



**Aloñak ligako lehen garaipena lortu du (1-0)**
Mondrak Idiazabalekin 0-1 eta UDAk Hernanirekin 1-3 galdu dute
KIROLA, 12-13

**Ruben Palacios**
Lehendakari saria eskuratu du
KIROLA, 17




ASTELEHENEKO
Goienkaria
ASTELEHENA • 2006ko irailaren 25a • 3. urtea • 115. zenbakia • 0,90 euro



JOSETXO ARANTZABAL

## JOXE MARI JAUREGI ETA 'BIZKOR' IZAN ZIREN GARAILE

Joxe Mari Jauregi Illarduiarra eta haren txakur *Bizkor* izan ziren atzo 47. Nazioarteko Artzain Txakurren txapelketako irabazleak Oñatin. 503 puntu lortu zituzten Santa Lutziako zelaian egindako hiru probetan. Eguraldiak baldintzatu egin zuen txapelketa eta txakurrek inoiz baino haginkada gehiago eman zituzten. 4

# Lehen faseko alzheimer gaixoendako zerbitzua aurki ibarrean

*AFAGIk kudeatutako estimulazio tailerra jarriko dute Bergaran, San Joxepe erretiratuen egoitzan*

**HITZARMENA SINATZEAR**
**Hilabete barru sinatuko dute AFAGIk eta Aldundiak hitzarmena; gero, beste hilabete bat beharko dute zerbitzua abiarazteko**

**AUTOBUS ZERBITZUA**
**Ibar osoko lehen faseko gaixoendako egongo da zabalik; horregatik, autobus zerbitzu berezia antolatuko dute herri guztietatik**

**SENIDEEI ARRETA**
**Interesatuak harremanetan jar daitezke, dagoeneko, elkartearekin. Senideak artatzeko gelak ere jarriko dituzte instalazioetan**

**HIRU ORDU EGUNEKO**
**Zerbitzua ez da eguneko zentroa izango, tailerra izango da, eta egunero hiru orduko jarduerak eskainiko dituzte**

Hilabete barru sinatuko dute hitzarmena AFAGIk eta Aldundiak, Nekane Larrañaga AFAGI elkarteko gizarte laguntzaileak aurreratu bezala. Lehen faseko alzheimer gaixoendako estimulazio zerbitzua izango da eta Debagoienari eta Soraluzeri egingo die zerbitzu. Bergarako San Joxepe egoitzan egokituko dute. 7

## Ehun bat Lambretta eta Vespa batu ziren atzo Elgetan

Garai bateko motorren nostalgikoen eguna izan zen atzo Elgetan. Duela 20 urtetik errepideetan ikusten ez diren modeloak ikusi ahal izan ziren topaketan. 6

## Ehunka arrasatearrek egin dute bat Mugikortasun Astearekin

300 bat lagunek hartu zuten parte atzo bizikletaren erabilera bultzatzeko irteeran. Zapatuko Bizikleta Azokari dagokionez, 40 bat bizikleta saldu zituzten. 2-3

• Jokin Zaitegi zenaren omenezko plaka jarri zuten eguenean, Arrasaten | 8
• Ehun Lambretta eta Vespa inguru batu ziren atzoko topaketan Elgetan | 6



Mila Elortza AHT Gelditu! Elkarlana taldeko kidearekin urriaren 7ko bilkuraz aritu gara | 5

**MUGIKORTASUN ASTEA ARRASATEN**



JOSETXO ARANTZABAL

Birzikleta Azoka, bigarren eskuko bizikleten azoka jarri zuten zapatuan Seber Altube plazan.

### Zenbakiak

**11.000**

Hori izan da hiri-busean doan ibiltzeko etxez etxe banatu duten ale kopurua. Ale bakoitzak sei bono zekartzan.

**300**

Hirurehun lagun animatu ziren domeka goizean bizikleta ibilaldira. Arrasateko kaleetan zehar ibili ziren ume zein helduak.

**40**

Berrogei bizikleta inguru izan ziren zapatuko Birzikleta Azokan saldutakoak. Hamar soilik gelditu ziren saltzeke.

**25**

Denera 25 ikasle aritu ziren *Gidatzeko ere efiziente-ekonomikoa* ikastaroan kontsumoa aurrezteko trukuak ikasten.

**INGURUMENA** | ZAPATUAN BIRZIKLETA AZOKA EGIN ZUTEN SEBER ALTUBE PLAZAN ETA ARRAKASTA HANDIA IZAN ZUEN

# Mugikortasun Astearen balorazio orokorra guztiz positiboa izan da

*Ume zein helduek izan dute mugikortasunaren inguruan gehiago ikasteko aukera*

*Birzikleta Azoka jarri zuten zapatuan eta bizikletan ibilaldia egin zuten domekan herrian zehar*

Goreti Elortza

16tik 24ra ospatu dute Arrasaten Mugikortasun Astea. *Aldaketa eskatzen digu munduak, Arrasatek aldaketa eskatzen digu* lelopean, asko izan dira asteburuan zehar gazte zein helduentzat antolatu dituzten ekimenak.

Udaleko Ingurumen arduradun Nerea Lazpiurrek balorazio positiboa egin dio asteari: "Oso harrera ona izan du Mugikortasun Asteak orokorrean. Pozik gaude lortutakoarekin".

Egubakoitzean, autorik gabeko egunean Europan, *Gidatzeko era efiziente-ekonomikoa* izeneko doako ikastaroa eman zuten udaletxean. Han, autoek kontsumitzen duten erregaia %20 murritz daitekeela ikasi zuten. RACeko bost irakaslek jardun zuten autoan diru gutxiago gastatzeko trukuak azaltzen, lau ordu iraun zuen ikastaroan.

Azalpenak emanda, ikasitakoa praktikan jartzeko aukera ere izan zuten ikasleek. Herrian zehar bi buelta eman zituzten autoan, eta bukaeran, emaitzak alderatu zituzten. Guztiek jaitsi zuten kontsumoa bigarren bueltan, batzuk nahiko urduri jarri baziren ere.

Marka onena Fermin Nuinek egin zuen, 100 kilometroko 4,2 litroko kontsumoarekin. Marka horrekin, Araitz Garaik goizean egindako errekorra –4,4 litro– hautsi zuen Nuinek.

**BIZIKLETA ERABILTZEKO DEIA ASTEBURUAN**

III. Birzikleta Azoka jarri zuten Seber Altube plazan zapatu goiz eta arratsaldean. Aurreko asteetan batu zuten bigarren eskuko materiala eta zapatuan jarri zuten salgai. Arrakasta handia izan zuen merkatuak. 80 produktu inguru jarri ziren salgai eta ia guztia saldu zen.

**Birzikleta Azokan 80 produktu jarri zituzten salgai eta ia guztia saldu zen**

**Herrian zehar egin zuten domekan bizikletan ibilaldia eta 300 bat lagun animatu ziren**

Jabe bakoitzak jarritako salneurrian, bizikleta, patinak, kaskoak, gurpilak, maillotak... saldu zituzten. Goizeko 11etan zabaldu zuten azoka eta jende ugari batu zen plazan. Bizikleta bera aukeratu zutenek zozketa egin behar izan zuten, esaterako.

Bizikleta martxa ere egin zuten domeka goizean, zikloturista elkartekoek lagunduta. 300 bat lagun animatu ziren, goizeko 11etan Seber Altube plazatik irtenda, herrian zehar egin zuten ibilaldira. Eta parte hartu zutenen artean, bizikleta bat, kaskoa... zozketatu zituzten.

## MUGIKORTASUN ASTEA ARRASATEN

### • MUGIKORTASUN ASTEKO IKASTAROAK



**IKASTAROA UMEENTZAT.** *Mugikortasun eta irisgarritasun tailerra* egin zuten egubakoitzean Seber Altube plazan. Han, Txatxilipurdikoen eskutik, irisgarritasuna lantzeko jarduerak egin zituzten, 18:00etan hasita.
Margo txokoan, adierazpen txokoan eta galderen txokoan primeran ibili ziren hara hurbildutako guztiak. Oztopoak ipini eta itsuen azalean jarri zituzten umeak. Lagun batek aginduak ematen zizkien ondotik. Elbarrien azalean ere jarri zituzten. Adin guztietako neska-mutilak animatu ziren tailerretara eta asko ikasi zuten.




**IKASTAROA HELDUENTZAT.** *Gidatzeko era efiziente-ekonomikoa* doaneko ikastaroa eman zuten egubakoitzean udaletxean. Goizean eta arratsaldean egin zituzten ikastaroak, lau ordukoak. Arratsaldeko txandan 13 lagun batu ziren eta teoria eta praktika tartekatu zituzten. Ikastaroan RACeko bost irakasle ibili ziren arauak ematen, eta giro bikaina izan zuten. Autoan bi buelta eman zituzten herrian eta gero emaitzak alderatu zituzten. Nabaria izan zen kontsumoaren jaitsiera. Ikasi zuten truku batzuk nahikoa direla gasolina eta dirua aurrezteko orduan.

### • MUGIKORTASUN ASTEAN HARTU ZUTEN PARTE



**GAZTE KOADRILA** | ARRASATE

Seber Altube plazan Txatxilipurdikoekin jardun zuten horiek guztiek jolasean: "Oso ondo ibili gara joko guztietan, baina itsuarena eta elbarriena izan da dibertigarriena. Zaila da ikusi gabe oztopoak gainditzea", esan zigun lagunetako batek. Zoroaren pare ibili zen arratsalde guztian 11 urteko koadrila hori.



**LUIS MARI** | ARRASATE

Helduentzako ikastaroan egon zen Luis Mari: "Oso interesgarria izan da. Zaila da ohitura aldatzea, baina espero dut ikasitakoa praktikan jartzea", adierazi zigun ikasleak.



**JON ANDER, UNAI ETA JOKIN** | ARRASATE

Birzikleta Azokan topatu genituen Jon Ander, Unai eta Jokin: "Lehenengo aldia da etortzen garena, eta saltzeko modu ona iruditzen zait, birziklatzeko modu bat da", esan zigun Jon Anderrek. "Umeentzat bizikleta bat erostekotan etorri gara, baina ez zaio gustatu...", gaineratu zuen Jon Anderrek.



GORETI ELORTZA

**ALEX** | RAC-EKO IRAKASLEA

**"Arau batzuk kontuan hartuz gero asko aurrez daitekeela erakutsi diegu, erregaian eta poltsikoan"**

Goreti Elortza

**Zeintzuk dira egiten diren akatsik ohikoenak?**

Akatsik ohikoenen artean bi aipatuko nituzke: alde batetik, martxa aldatzea asko kostatzen zaigu, erreboluzio gehiegi duenean aldatzen dugu. 2.000 erreboluziotan aldatuta nahikoa da. Bestalde, aldapa bat jaisterakoan askotan jartzen dugu autoa lokagunean (*punto muerto* delakoan). Bada, martxa bat sartuta egiten badugu, kontsumoa zero da, lokagunean ez bezala.

**Zenbat diru eta gasolina aurrez daiteke truku horiekin?**

Gauzak ondo eginez gero asko aurrez daiteke. Ikastaroko emaitzetan argi ikusi dugu zenbait arau kontuan hartuta erraz aurrez daitekeela. Hori bai, kilometro asko egin behar dira benetan aurreztu denaz jabetzeko.

**Emaitzen arteko aldea nabaria izan da ikastaroan?**

Batez bestekoa jaitsi egin da; beraz emaitzak onak dira. Gainera, bigarren bueltan zirkulazio handiagoa egon da eta denbora luzeagoa pasa dugu gidatzen. Hala ere, gehienek lehenengo itzulian baino gutxiago kontsumitu dute; aldea nabaria da, beraz.

**Ondo gidatzen dute arrasatearrek?**

Orokorrean oso ondo gidatzen dute arrasatearrek. Batez bestekoa altua izan da. Hala ere, herritar guztiak animatu nahi ditugu ikastaroetara. Asko ikasten da eta praktikoa da oso. Primerako giroa izan dugu, gainera.

Hemen GARBIKETAK

Garbiketetan profesionalak gara!

943 71 48 45 www.hemen-garbiketak.com

**ARTZAIN TXAKUR TXAPELKETA** | JENDE UGARI BATU ZUEN DOMEKA GOIZEAN OÑATIN EGIN ZEN NAZIOARTEKO 47. TXAPELKETAK

# Joxe Mari Jauregik eraman zuen txapela, hirugarrenez

*'Bizkor' 7 urteko txakur beteranoak eman zion hirugarren txapela Joxe Mari Jauregiri*

*Xabier Urienen 'Txiki' eta Joxe Mari Jauregiren 'Bizkor' izan ziren txapelketako txakurrik finenak*

Goreti Elorza

11:00ak aldean hasi zen Santa Lutziako zelaian 47. nazioarteko artzain txakur txapelketa. Hamabi artzainek hartu zuten parte euren txakurrekin. Kataluniatik bi etorri ziren, Frantziatik beste bi eta gainontzekoak Euskal Herrikoak izan ziren.

Artzainak epaimahaiaren aurrera deitu eta zozketa egin ostean, lehenengo ariketari eman zioten hasiera.

Hiru minuturen barruan, txakurrak, artzainaren esanetara, ardiak zeuden kontrara eta banderatxoz egindako bide batetik joan behar zuen. Epaimahaiak izendatutako bi lekutan geldiarazi egin behar zuen jabeak txakurra, eta gero ardiengana astiro sartzeko agindu.

Epaimahaiak bigarren probara zeintzuk pasatuko ziren erabaki bitartean, euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko eskatu zuen han batutako talde batek.

Txapelketak aurrera egin zuen eta hamabitik zortzi pasatu ziren hurrengo probara. Hauek izan ziren bigarren ariketara pasatu ziren txakurrak: *Nuca, Alai, Una, Izar, Txiki, Luz, Txiki* eta *Bizkor*. Bada, bigarren ariketan, sei minuturen barruan artzainak txakurrari artaldea zegoen lekutik zelai barrenean jarritako makila baten ondora eramateko agindu behar zion, eta bertan gelditzeko. Hori lortutakoan epaimahaiak adierazitako eskumako edo ezkerreko hesi artetik pasatu behar izan zituzten ardiak. *Nuca, Izar* eta *Luz* kanpoan gelditu ziren, hiru aldiz haginka egitearren.

**AZKEN ARIKETA**

Hala, azken probara *Txiki, Bizkor, Una, Txiki* eta *Alai* pasatu ziren. Txakurrek artaldea erdian zegoen eskortan sartu behar izan zuten. Behin ardi guztiak barruan, zakarkeriarik gabe atera behar izan zituzten. Eta hori guztiori egiteko zazpi minutu izan zituzten.

Epaimahaiko kideek ziotenez, ez zen erraza izan irabazlea aukeratzea. Izan ere, Xabier Urien eta *Txiki* ere ederto moldatu ziren: "Hala ere, hirugarren ariketan hobeto ibili da *Bizkor*", esan zigun epaimahaiko kide batek. "Beste urte batzuetan baino maila baxuagoa egon da gaur", gaineratu zuen.

Bukatzeko, ariketetan lortutako puntuak batu eta sari banaketari ekin zioten ordu biak aldera. Hirugarren aldiz irabazi zuen Joxe Mari Jauregi arabarrak txapela *Bizkor* txakurrarekin. Iaz ere hark irabazi zuen txapela eta baita orain dela hiru urte ere. *Bizkor*-ek 7 urte dauzka, beteranoa dagoeneko, eta bere esperientzia baliatu zuen irabazteko.




JOSETXO ARANTZABAL

*Bizkor* 503 punturekin nagusitu zen Santa Lutziako zelaian.

**• TXAPELKETAKO UNE AIPAGARRI BATZUK**



**EPAIMAHAIAN.** Epaimahaian hainbat lurraldetako zazpi ordezkari egon ziren: Jose Mari Uztarroz eta Ignacio Huarte (Uharte-Arakil), Iñaki Iriondo (Araba), J. M. Mendizabal (Gipuzkoa), Fermin Mihura (Iparralde), Maribel Martinez (Katalunia) eta Jose Mari Pradera (BIzkaia) izan ziren.



**SARI EMATEA.** Ordu biak aldean eman zituzten sariak. Txapeldunak, 503 punturekin, Joxe Mari Jauregi eta *Bizkor* izan ziren, Ilarduiakoak. Bigarren postuan, Abadiñoko X. Urien eta *Txiki* geratu ziren 493 punturekin eta hirugarrenak Frantziako J. F. Casaux eta *Una* txakurra izan ziren, 407rekin.

**Esandakoa**

"Txakurrek asko egin dute kosk gaurkoan, eta ardiak oso biziak ziren. Txapelketa eguraldiak baldintzatu du"

**JOSE MARI PRADERA** | EPAIMAHAIKO KIDEA

"Edozer gerta daiteke probetan, ezin da azken unera arte txapelduna nor izango den jakin"

**JOXE MARI JAUREGI** | TXAPELDUNA

AHT Gelditu! Elkarlana taldeak manifestazioa deitu du urriaren 7rako Legutianon. *Herriari entzun! AHT Gelditu* leloarekin, Jaurlaritzari eta Sustamen Ministerioari exijituko diote *Euskal Y*-aren egitasmoa gelditzea; baita herritarren artean informazio, eztabaida eta erabaki prozesua abiaraztea beharrezkoa dela aldarrikatu ere. Eta, bide batez, justizia soziala, oreka ekologikoa eta herritarren erabakitzeko eskubidea bermatuko dituen gizarte ereduaren alde azalduko dira.

**MILA ELORTZA** | AHT GELDITU! ELKARLANA TALDEKO KIDEA

# "Oso une kritikoan gaude, lanak urrian hastekoak dira-eta"

Monika Belastegi

**Zer salatuko duzue manifestazio horretan?**

Oso une kritikoan gaudela. Gobernuek ere diote urrian hasiko direla lanak. Gainera, Araban, Legutiano eta Arratzu-Ubarrundia tartea eraikitzen hasteko lanak bi enpresari esleituta daude dagoeneko, Altuna y Uria eta Tecsa enpresei.

Horrekin batera, barikuan Espainiako Ministroen batzordeak baimena eman zion Sustapen Ministerioari enkantea egiteko Legutiano eta Durango arteko tarteari dagokionez. 354 milioi eurotan eman nahi dituzte lanok eta tarte hori lau zatitan banatuta dago: Legutianotik Eskoriatzara bi zati daude, Arrasatetik Elorriora hirugarrena eta Abadiñotik Durangora, laugarrena. Hori horrela, *Euskal Y*-a osatzen duten hiru puntuetan hasiko dituzte lanak: Araban (Legutiano); Bizkaian (Elorrio) eta Gipuzkoan (Eskoriatza).

Beste gauza bat ere hartu behar da kontuan. Oro har, oraindik ere lurjabeen baimenik ez dutela lanekin hasteko. Hala ere, esandako hiru herrietan gauza bestelakoa da: Legutianoren kasuan, lurrak desjabetuta dituzte autobidea egiteko. Hala, aprobetxatu egingo dute desjabetze hori trenaren lanei ekiteko. Eskoriatzan ere gauza bera da: autobidearekin paralelo joango litzatekeenez trena, autobiderako desjabetutako lursailetako batzuetatik doazen tarteak atera dituzte enkantera. Elorrio-Durangoren kasuan ez dakigu zergatik aukeratu duten tarte hori. Atxondo udal gisa kontra dagoela kontuan izanda, gainera.

**Eztabaida sozialari kasurik egiten ez diotela-eta, gobernuen prepotentzia berretsi duzue egonotan.**

Sekula ez digute eman Jaurlaritzatik eurekin eztabaidatzeko aukerarik. Askotan saiatu gara, baina sekula ez digute kasurik egin, eta, orain, eurak ari dira esaten bilera bat egitea komeni dela, baina proiektua martxan dagoen bitartean. Proiektua geratzea ez dute entzun ere egin nahi. Tren Soziala plataformakoei ere berriki egin diete dei batzar baterako, baina pentsatzen ari dira joatea komeni den ala ez. Izan ere, garbi ikusten dute batzar hori zertarako izango den: gaia albotik partxeatu eta, gainera, gobernuak aukera izan dezan esateko proiektuaren aurkakoekin batzartu dela eta akordiora iritsi direla. Eta hori gezurra da.


ARTXIBOA
Mila Elortza.

**Hortaz, Gobernuak ez ei du asmorik inongo arrazonamendutara iristeko, eta bide horretan gizarte esparru zabal baten iritzia alboratu duela diozue.**

Gehiengo sindikala, esaterako, aurka dago. ELA Tren Sozialaren plataforman dago, eta AHT Gelditu! Elkarlana taldearen barruan dauden gainerako sindikatuak kontuan izanda, Euskal Herriko gehiengoa osatuta dago. Horren atzean dagoen jende kopurua handia da, baina Gobernuak ez du aintzakotzat hartzen. Diote parlamentuan gehiengoa daukatela eta horrek ematen diela eskubidea. Baina parlamentuak ez du eskubiderik nahi duen guztia egiteko.

**Trenaren erabilera bikoitza, hau da, bidaiariendako eta merkantziarako izatea ez duzue bideragarri ikusten.**

Gezurra da merkantzia ere garraiatuko duela. Jaurlaritza egiten ari den kanpaina informatiboa makillaje demagogikoa da. Erabilera bikoitzaren harira, trena zabalera ezberdinarekin, parametro ezberdinetan egitea planteatzen da Frantzia aldean eta gure aldean. Hori horrela, Irunen ez dute, bada, merkantzia tren batetik bestera pasatuko... Gainera, frogatuta dago saiatu diren herrialde guztietan erabilera bikoitzak ez duela funtzionatu.

Edo enpresatik bertatik ateratzen da merkantzia trenean edo kamioian eroaten dute. Ez da errentagarria izaten kamioitik trenera eta trenetik kamioira pasatzen ibiltzea.

**"Gaur egun ez da inon egiten bidaiari eta merkantzia garraio mistoa abiadura handian"**

**"Indarrak batuz gero, uste dugu Jaurlaritzak gaia hausnartzeko modua egongo dela"**

Errepideetako trafikoa ere ez da gutxituko. Gaur egun ez da inon egiten bidaiari eta merkantzia garraio mistoa abiadura handian. Alemanian saiatu ziren eta laga egin zioten, aukera horrek mantenu kostu handia zuelako. Merkantziaren pisuak mugitu, zabaldu... egiten zuen trenbidea eta, ondorioz, etengabeko errebisioa behar zuen, bidaiariendako abiaduran istripurik gerta ez zedin. Dirua aurreratze aldera, errebisio batetik besterako denbora tartea luzatu egin zuten eta lau istripu gertatu ziren. Hala, merkantzia ohiko trenean egiten jarraitzen dute eta abiadura handikoa bidaiariendako bakarrik da.

**Errentagarria ez bada, trafikoa ez badu gutxituko, kalte sozialak, ingurumenarenak horren handiak badira, zergatik ari da Jaurlaritza abiadura handiko trena bultzatzen?**

Argi dagoelako une honetan Euskal Herriaren ekonomia mugitzen duena azpiegituren inguruko enpresen dirua dela. Gobernuak eta politikariek ginpide bisuala dute, baina benetakoa, atzean dauden enpresa eraikitzaileek, zementu-fabrikek... daukate.

**Frantzian AHTren gaineko eztabaida publikoan ari dira. Eta hemen?**

Etxe guztietara banatu zituzten informazio orriak eta orain, herri guztietan ari dira eztabaidatzen. Hendaian, esaterako, urriaren 4an egingo dute batzarra gaiaren gainean eztabaidatzeko. Batzar irekiak dira eta nahi duen edonor joan daiteke eta proiektuaren gainean duen iritzia eman eta eztabaidatu.

Hemen sekula ez dute halakorik egin. Gobernuari zergatia galdetu diogunean jaso dugun erantzuna izan da hemen ez dagoela kulturarik, hau da, ez garela gai izango informazioa asimilatzeko-edo... Baina bultzatzen ez badute, nola sortuko da, bada, eztabaidarako kultura?

**Informazio nahikoa dugula uste duzu?**

Informazio falta izugarria da. Irailean udaletara iristekoak ziren proiektuak ere ez dira oraindik iritsi. Gipuzkoa osoan Itsasondo da proiektua duen bakarra, eta burugogor jarri zelako. Esaterako, Jaurlaritza egiten ari den informazio kanpainan dio eskualde guztietan Lurranet izeneko informazio bulegoak irekiko dituztela –gure ibarrean Arrasaten, seguruenik–, lurjabeei informazioa emateko. Oraingoz Gasteizen bakarrik ireki dute. Eta hori, dagoeneko hainbat tarte enkantera aterata daudela.

**Urbinan herri kontsulta egin zuten uztailean eta herritarrek AHTrik ez egitea bozkatu zuten.**

Urbinakoei babesa adierazi nahi diegu; bakarrik ez daudela esan nahi diegu, eta, besteak beste, babes hori nola bideratu erabakitzeko urriaren 7ko manifestazioaren aurretik urteko batzarra egingo dugu Elkarlanekook.

Bestalde, nahi dugu Elkarlana osatzen duten sindikatu, talde, erakunde... guztiekin egon eta benetako inplikazioa eskatu. Ez daitezela mugatu atxikimendua adierazi eta pankartara etortzera. Jendea aktibatzea, mobilizatzea da asmoa. Horrekin batera, nahi dugu Eskoriatza, Bergara, Antzuola edo Elorrio bezalako herriak jabearaztea orain Urbina dela, baina geroago eurei ere iritsiko zaizkiela obrak. Hala, indarrak batu eta Urbinan, puntu jakin horretan, AHTri kontra egiten badiogu errazagoa izango dela lanak geldiaraztea ibilbideko hainbat puntutan, lanak hasita daudenean baino. Indarrak batzen baditugu uste dugu Jaurlaritzak gaia hausnartzeko modua egongo dela.



JON BEREZIBAR

Arratsaldean erakustaldia egin zuten motorzaleek.

## Zenbakiak

**100**

Lambretta eta Vespa inguru elkartu ziren domekan Elgetan. Gehienak Eibarko Lambretta Clubetik etorritakoak.

**54**

Urte ditu betan zegoen Lambrettarik zaharrenak. Enrike Mugertza Eibarko lantegiko langile ohiarena da motorra.

**1954**

Urte hartan ireki zuten Eibarko Lambretta fabrika eta urte haren amaieran saldu ziren lehenak. 1984an itxi zuten lantegia.

**75**

Motorzale joan ziren eguerdian egindako bazkarira. Gero, abildade ariketak egin zituzten motorrak erakusteko.

**LAMBRETTA ETA VESPA FESTA** | EHUN MOTORZALETIK GORA BILDU ZEN

# Garai bateko Lambretten burrunbak atzera Elgetan

*Euskal Herriko Lambretta eta Vespa motorzaleek erakustaldia eta topaketa egin zuten atzo Elgetan*

Jon Berezibar

Garai bateko motorren nostalgikoen eguna izan zen atzokoa Elgetan. Motor hotsak herri osoan, eta orain dela 20 urtetik errepideetan aurkitzen ez diren modeloak ikusi ahal izan ziren. Antza, Lambretta motorrak arrasto sakona utzi zuen Euskal Herrian, eta, 80ko hamarkadan Eibarko lantegia itxi zutenetik, antzinako motor txiki horien nostalgikoen kopurua hazi besterik ez da egin.

Ehun zaletik gora batu zen atzo Elgetan, nork bere altxor txikia paseatzen erakusteko, harro-harro. Eibarren badago Lambretta Club bat, eta haiek lagunduta prestatu zuten Elgetako topaketa. Denetik ikus zitekeen han, baita jende gaztea ere antzinako Lambretta eta Vespak miresten. Motor zaharrak konpontzea eta bilduma egitea gustuko dute askok, baina beste batzuek politak direlako ere aipatzen zuten Lambretta eta Vespak gogoko dituztela. Beste gutxi batzuek, baina, bizitza osoa eman dute motor txiki horiei lotuta. Enrike Mugertza da horietako klasiko bat eta bertan izan zen, bere 1942ko Lambretta erakusten. Fabrikan egin zuen lan Mugertzak, eta Europan zehar ere ibili zen gaztetan motorrarekin. Horren lekuko, makina bat argazki album eraman zituen, motorraren historia, Eibarko lantegiarena eta berak eginiko bidaiak jasotzen dituena.

**Eibarren egiten ziren motorrek arrasto handia utzi zuten gurean ere**

**TOPAKETA ETA IBILALDIA**

Goizeko hamarretan hasi zen topaketa eta bertan egon ziren motorzaleak ordu bata arte. Horren ostean, motorrak hartu eta Elgeta eta Bergara inguruetan egin zuten erakustaldia; gero, elkarrekin bazkaldu zuten. Arratsaldean, berriz, erakustaldia egin zuten motorzaleek, abildade probekin bertaratutakoak entretenitzeko.

**• MOTORZALE BAKOITZAK BERE ALTXOR TXIKIA ERAKUTSI ZUEN**



**FERMIN IRIBAR** |
ELGETA | 1954KO LAMBRETTA

"Motor hauek antzinako gauzek duten zer hori daukate. Orain gauza berri asko daude eta jendeari lehen gauzak zelan ziren ikustea gustatzen zaio, lehengo garaietan zelan ibiltzen ziren jakiteko. Oso motor politak dira eta zale asko dago. Ni Eibarko Lambretta Clubeko kide naiz eta eurekin batera antolatu dugu Elgetako topaketa. Denetarik dago".



**ENRIKE MUGERTZA** |
TRABAKUA | 1952KO LAMBRETTA

Bizipen asko izan ditu Mugertzak Lambretten gainean: "Espainiako Itzulia 12 urtean egin nuen nik Lambretta baten gainean. 23 urterekin motorra Eibarren hartu eta Londresera joan nintzen hango topaketa batera". Antzinako bost motor daukaz eta argazkikoa du preziatuena. "Ingeles batzuek erosi nahi didate, baina hil artean nirekin egongo da, ez dut salduko".



**JOSEAN PAREDES** |
EIBAR | 1954KO LAMBRETTA

Lambretta-zaleen ordezkaritza zabala etorri zen Eibartik. Paredes elkarteko lehendakaria da: "Oso gurea den motorra da, Eibarren egiten zen-eta. Klasiko bat da. Orain dela lau urte berreskuratzen saiatu ginen eta konturatu gara zale mordoa dagoela, bai bilduma egiten eta baita berritzen ere. Erantzun bikaina izaten dute topaketa guztiek".



**RAMON ANGIANO** |
LASARTE | 1991KO VESPA

"Diseinu oso polita daukate motor hauek, argi ikusten da hori hemen, garai guztietako modeloak daude-eta. Motor tradizionalak dira, betidanik egon direnak, eta badute zerbait berezia. Motor hauek Lasartetik Elgetara, Santanderrera edo Madrilera arazo barik heltzen dira oraindik. Mantentze-lanez ere neu arduratzen naiz".

# Alzheimerra dutenentzako estimulazioa aurki Bergaran

*AFAGIk eta Aldundiak ibar osorako zerbitzua ipiniko dute, lehen faseko gaixoendako*

J. B.



JOSETXO ARANTZABAL

San Joxepe egoitzak dauzka baldintzarik onenak, AFAGIren ustez.

Alzheimer gaitza dutenentzako estimulazio tailerra zabalduko dute laster Bergaran, Debagoienari eta Soraluzeri zerbitzua emateko. AFAGI erakundeak abiatuko du tailerra Aldundiaren laguntzarekin, eta San Joxepe egoitzan instalazioak erabiliko dituzte horretarako.

Hilabete barru sinatuko dute hitzarmena AFAGIk eta Aldundiak, Nekane Larrañaga elkarteko gizarte laguntzaileak aurreratu bezala, eta beste hilabete beharko dute Debagoieneko zerbitzua prest izateko.

Tailerra ez da eguneko zentroa izango, hala ere. Gaixotasunaren lehenengo fasean daudenentzako jarduerak egingo dituzte San Joxepeko egoitzan, AFAGIko bazkide izan edo ez.

### LOKALA AUKERATUTA

Hitzarmena sinatzeko bidean badago ere, San Joxepeko instalazioak erabiliko dituztela ia segurua dela aurreratu du Larrañagak. Bertan, tailerraz gainera, senideak artatzeko gelak izango dituzte eta bestelako jardueretarako ere. Bertara joateko autobus zerbitzua egongo dela ere aurreratu dute. Era berean, elkartetik jakinarazi dute, planifikatzen hasteko, zerbitzuan interesa dutenek AFAGIrekin harremanetan jar daitezkeela.



MIKEL LETE

Bergarako alderdikideak txosnan lanean.

# Alderdi Egunean aurten ere "ederto" bergararrak

Jon Berezibar

Euri apurra izan zen atzo Salburuako zelaietan Alderdi Eguneko eragozpen bakarra. Bergarako batzarreko txosnak egin zituen Debagoieneko ordezkaritza lanak.

Egun osoan "giro bikaina" izan zutela dio Mikel Lete Bergarako batzarreko kideak. Aurkakoa gertatzeko aitzakiarik, behintzat, ez zuten izan bergararrek. Alderdi Eguneko txosna arrakastatsuenetakoa izan ohi da Bergarakoa eta horretan zeresan handia izaten dute erreileno eta tostoiek. Aurten ere 1.700 ale eroan eta guztiak saldu dituzte. Egun osoan Bergarako 60 lagun ibili ziren lanean eta 108 bazkari zerbitzatu zituzten. Bertan egon ziren bazkaltzen Arrasateko eta Oñatiko ordezkariak ere. Hain zuzen ere, Arrasatekoek aurten ez dute-eta txosnarik ipintzerik izan.

Hala, egun osoan lanean ibili-eta gero, "neka-neka eginda daudela" zioten atzoko azken orduan Bergarako ordezkariek, baina "beste urte batez Alderdi Egun polita ospatzeagatik pozik".

* Azkeneko fasean, Ford berri bategatik alda dezakezu , itzuli edota autoarekin gelditu. Hori guztia kontratuan adostutako baldintzetan. Adibideak: **Focus Trend TDCi 115 ZP 5 ate**. Prezioa: 15.433,79 €. Irekiera komisioa: 299,28 €. Prezio osoa epetan: 17.564,37 €. UTB kuotarik gabe doan 8,89 €. **Focus C-MAX Trend TDCi 115 ZP** Prezioa: 17.4233,79 €. Irekiera komisioa: 310,35 €. Prezio osoa epetan: 19.680,39 €. UTB kuotarik gabe doan 8,88 €. Gomendatutako prezioak, BEZa, garraioa, matrikulazio zerga, kontzesionarioaren ekarpena eta Prever Plana barne. TIN % 7.50 . Espainiako Estatuko FCE Bank Plc sukurtsalek eskainitako finantzaketa. RBE 3155/06 zenbakia. Penintsula eta Balear Uharteetan baliagarria hil amaiera arte. Lehenengo lau kuota Ford Españak oparituta. Irudiko ereduak: Focus XR 18" -ko llantekin eta C-MAX S. Eskaintza ez da baliagarria Ford-eko langileentzat. Focus/C-MAX: kontsumoa: 4,7-7,3 l/100 km. $CO_2$ emisioak ,125-224 g/km.

30 URTEURRENA




Duela 30 urte hemen hasi ginen, eta horregatik zurekin detaile bat izan nahi dugu.




**Ford**Focus Trend TDCi 115 ZP **150 €-gatik hilean*, 36 kuotatan.**
Sarrera: 3.462,69 €. Azken kuota: 9.002,40 €. UTB %6,70 ( Prever Plana barne).



**Ford**Focus C-MAX Trend TDCi 115 ZP **150 €-gatik hilean*, 36 kuotatan.**
Sarrera: 5.009,79 €. Azken kuota: 9.560,25 €. UTB %6,79 ( Prever Plana barne).

**Lehenengo lau kuotak Ford-ek ordaintzen dizkizu.**

**MUGARRI AUTOAK**
**Araba Etorbidea, z/g**
**ARRASATE**

Feel the difference



JON BEREZIBAR

Erdiko kaleko 52an, Gazteluondotik gertu, bizi izan zen Zaitegi euskaltzalea.

# Zaitegi "euskaltzain handi" eta "mondragoetar harroa" omendu zuten barikuan

*Jokin Zaitegi jaio zela mendeurrena betetzen den honetan, oroimenezko plaka ipini zuten Erdiko kalean haren etxe izandakoan*

Jon Berezibar

Arrasateko euskaltzalea bertan bizi izan zelako oroigarri, plaka ipini zuten egubakoitzean Erdiko kaleko 52an. "Euskaltzain handi", "euskarak eta unibertsitateak asko zor diotela", "gizon nekaezin" eta halako berbak entzun ziren aurrez Jose Luis Lizundia, Miren Azkarate eta Jose Mari Velez de Mendizabalen ahoetan, idazle eta euskaltzale izan zenari egindako omenaldian.

Egubakoitz arratsaldean egindako ekitaldian, lehen saioa Arrasateko udaletxean egin zuten. Bertan egin zieten harrera Zaitegiren senitartekoei eta hizlariei. Osoko bilkuren aretora igota, Inazio Lakuntza alkateak haren testu bat irakurri eta Lizundia euskaltzainari eta Azkarateri eman zien hitza: "Neke asko eta laguntza gutxi jaso" zituen pertsona izan zela azaldu zuen Lizundiak, Zaitegik euskararen inguruan egindako lana eta ahalegina gogora ekarrita. Euskaltzaindia ere zordun dela gehitu zuen, hark egindako ikerketa eta itzulpenengatik eta utzitako liburuengatik. Azkaratek ere euskal kultura zenbateraino den zordun hausnartzen ibili zen bere hitz egiteko txandan. Azkarate penatuta agertu zen haren belaunaldiak ez zielako gerraosteko belaunaldiko idazleei behar besteko arretarik eskaini, baina urteekin konturatu direla Zaitegik eta haren garaikideek euskararen batasunarengatik, unibertsitatearengatik eta filosofia eta klasikoak itzultzeagatik egindako lan eskergaz. Velez de Mendizabalek Zaitegiren atartean esan zituen azken berbak: "Gizon bitxia" zela esan zuen, eta liburuak zenbat maite zituen azaldu. Haren azken urteak zelako latzak izan ziren ere azaldu zuen idazleak.

**• HIZLARIEK ESANDAKOAK**



**JOSE LUIS LIZUNDIA** | EUSKALTZAINA

"Hark egindako lanak tesi bat baino gehiagorako ematen du. Euskaltzaindia eta euskarazko literatura zordun dira, herri xeheak haren lana ez ulertu arren".



**MIREN AZKARATE** | KULTURA SAILBURU ETA EUSKALTZAINA

"Euskara kultura mailan igotzeko ahalegina eskertu behar zaio. Erakutsi zuen euskarak unibertsitaterako, filosofiarako eta klasikoetarako balio zuela".



**JOSE MARI VELEZ DE MENDIZABAL** | EUSKALTZAIN URGAZLEA ETA IDAZLEA

"Langile porrokatua izan zen Jokin Zaitegi eta ez zuen sekula ere saldu bere mondragoetartasuna. Euskaraz maiteminduta zegoen pertsona zen".

# Ibarreko bigarren Elkar Megadenda inauguratu dute Arrasaten

*Abuztuaren erdialdera zabaldu zuten arren eguenean egin zuten inaugurazio ekitaldia, Erdiko kalean*

A.G.

Eguenean inauguratu zuten Arrasateko Erdiko kalean Elkar-Megadenda, Elkar Fundazioak ibarrean irekitzen duen bigarrena –Bergaran badu aurretik beste bat–. Jende ugari batu zen ekitaldian: herritar ugari eta politikari, idazle, historialari eta sindikatuetako ordezkariak, besteak beste.

Hire liburu denda itxi zutenetik liburu dendarik gabe zegoen Arrasate. Eta Jon Jakak, Elkar Fundazioko idazkariak esan zuenez, megadendak "aukera zabala eskaintzen du liburu, disko, aldizkari eta papertegian; baita sareko beste dendetako materiala egun batetik bestera eskuratzeko modua ere". Arrasatearrek dendari harrera ona egin diotela esan zuen.



GOIATZ ARANA

Jon Jaka eta Joxe Arantzabal idazle eta HUHEZIko irakaslea ekitaldian.




JOSETXO ARANTZABAL

Manifestazioa egin zuten egubakoitzean Arrasaten.

## Auzitegi Nazionalari stop esan zioten egubakoitz arratsaldean Arrasaten eta Antzuolan

Goreti Elortza

*Gerrako estrategia eten. Auzitegi Nazionala eta Pariseko 14. sekzioa itxi* lelopean egin zuten manifestazioa egubakoitz arratsaldean Arrasaten.

Jende ugari batu zen Seber Altube plazan, 19:30ean, Auzitegi Nazionalari stop esateko, "euskaldunontzat desagertu egin behar duela salatzeko", hain zuzen. Askatasunak deitutako manifestazioan, Iñaki De Juana presoa askatzeko ere eskatu zuten, beste behin, eta "justiziarik gabe bakerik ez dela egongo" oihukatu zuten.

**ANTZUOLAN ERE BAI**

Askatasunaren deialdi bererekin bat eginez, Antzuolan ere hainbat lagunek elkarretaratzea egin zuten barikuan

## Albiste izango da

**ARETXABALETA** | BERGARAN ABIAN DA JADANIK

### Berriketan egitasmoa aurkeztuko dute, euskaldun berriei laguntzeko

Eguaztenean, goizeko 11etan aurkeztuko dute Aretxabaletako udaletxeko osoko bilkuren aretoan Berriketan egitasmoa. Euskaldun zaharrak eta berriak harremanetan ipini nahi ditu egitasmo horrek, euskara ikasi dutenek edo ikasten dabiltzanek hizkuntza modu naturalean erabiltzeko guneak izan ditzaten. Egindako lanaren nondik norakoak eta orain arte lortutakoak aurkeztuko dituzte eguaztenean. Bergaran, berriz, dagoeneko martxan da plan bera eta berbalagun taldeak eta asteburuetarako ekintzak antolatu dituzte. Gehiago jakin gura izanez gero 943 76 08 16 telefonora deitu behar da.

**BERGARA** | JOLASEAN EUSKARAZ EGITEKO

### Egubakoitzetik abian da Jardunek antolatutako Jolasleku Ibiltaria

Egubakoitzean hasi zen, beste urte batez, Jardun elkarteak antolatutako Jolasleku Ibiltaria. Horrekin, herriko toki jakinetan, haur eta guraso ala zaintzaileak ibiltzen direnetan, euskaraz jolasteko baliabideak eskura ipintzen ditu Jardunek.

Hala, 6 eta 12 urte bitarteko haurrentzat euskal kantu eta jolasak gertatu dituzte: sokasaltoa, abestiak, zapi jolasak, goma, baloiarekin egindakoak... Guztia, ahozkotasuna lantzeko helburuarekin. Oraingo egubakoitzean pilotalekuan egongo dira Jardunekoak eta beste bi astez ere egongo dira: hilaren 29an Espoloira joango dira eta, azkeneko aldiz, Simon Arrietan egongo dira, urriaren 6an, hain zuzen ere.

**BERGARA** | IZENA EMAN BEHARKO DA

### Xipizaro ludoteka berriak 40 umerendako lekua izango du

Xipizaro ludotekak Agorrosinen izango du egoitza berria. Plaza mugatuak izango ditu, eta bi begirale. Plazak zozketatu egingo dituzte umeen artean. Ludoteka berriak umeendako jolasak eta ipuinak izango ditu eta astelehenetik zapatura egongo da zabalik, 17:00etatik 20:00etara. Astelehen eta eguaztenetan, 3tik 7 urte bitarteko umeendako izango da zerbitzua; martitzen eta eguenetan, 7tik 12ra bitartekoendako eta egubakoitzetan eta zapatuetan, 3tik 9ra artekoendako.

Urriaren 9an zabalduko dute Xipizaro ludotekaren egoitza berria. hara joaten izena eman behar da eta epea zabalik dago gaurtik aurrera: 10:00etatik 12:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Izena emango duten umeek fitxa bete beharko dute.

**ANTZUOLA** | ERREKLAMAZIO EPEA ZABALDIK DAGO

### Etxebizitza tasatuetarako zerrenda ikusgai jarri dute

Martitzena ezkero ikusgai dago udaletxean Eguzki auzoan eraikiko dituzten etxebizitza tasatuetarako behin-behineko zerrenda. Eskaria aurkeztu zutenek erreklamazioak egiteko 15 eguneko epea izango dute. Erreklamaziook aztertu eta gero kaleratuko dute etxebizitzon jabeen behin betiko zerrenda. Hogei etxebizitza tasatu egingo dituzte Eguzkin, eta Udaletik jakinarazitakoaren arabera, hilabetea amaitu aurretik hasi nahi dituzte lanak. Ondoren, urte eta erdiko epea egongo da obrak bukatzeko. 54 eta 88 metro koadro artean izango dute etxeok, eta, batez beste, 180.000 euroko prezioa.

**ELGETA** | URRIAN HASI NAHI DITUZTE SAIOOK

### Umeendako kirol saioetan izena emateko epea etzi bukatuko da

Urrian hasi nahi dituzte eskolaz kanpoko orduetan umeendako kirol saioak. Batetik, eskola kirola benjamin eta alebin mailetako ikasleendako. Astean ordu eta erdiko saio bat egingo dute umeek eta zapatu goizetan txapelketak jokatuko dituzte Bergaran. Lehen Hezkuntzako lehen ziklokoendako, jolasetan oinarrituz kirol hastapena helburu duten saioak izango dira astean behin, ordubetez. Zerbitzuon prezioa 30 euro da ikasturte osorako, eta etzi, hilaren 27a, bukatuko da izena emateko epea. Eskolan edo udaletxean eman daiteke izena. Urriaren 2an batzarra izango da, 19:00etan, kultura etxean gurasoei kirol jardueren nondik norakoak azaltzeko.

## Hitzorduak



**DEBAGOIENEKO TURISMOAN ESPEZIALISTA IZATEKO IKASTAROA DAGO** | Mankomunitateak antolatzen du, eta izenematea zabalik dago asteon

Debagoieneko turismoan espezialista izateko ikastaroa antolatu du Mankomunitateak, eta irailaren 29ra arte eman daiteke izena Mankomunitatearen egoitzan, Arrasaten, edo edozein udaletxetan.

Urriaren 23an hasiko da. 150 ordukoa izango da: 100 ordu eskolatan eta 50 ariketa praktikotan.

Helburu nagusia hauxe da: jendeari informazioa emateko, bisita gidatuak eta kultura eta natura ondarearen animaziorako ekintzak garatzeko eta Debagoienean barne turismoa kudeatzeko prestakuntza ematea. Argibide gehiagorako, deitu 943 79 64 63 telefono zenbakira.

**ARAMAIO** |

• **Adobe Acrobat Reader programa ikasteko aukera**
Adobe Acrobat Reader programa irakatsiko dute gaur, astelehena, KZgunean, 16:00-20:00.

**ARETXABALETA** |

• **Bataioa eskatu gura dutenendako argibideak**
Urriaren 1ean bataioak egingo dituzte parrokian, eta hartu gura dutenek eskatu egin ditzakete parrokiako bulegoetan.

• **Algara ludotekak ateak zabalduko ditu egunotan**
Ludotekak ate ireki egunak ditu hilaren 28ra bitartean, 17:30etik 19:30era.

**ARRASATE** |

• **Yoga eskolak Sanatana Dharma eskolan**
Yoga eskolak emango ditu Sanatana Dharmak urriaren 2tik aurrera. Argibideak: 635 71 06 16 (Maite) edo 943 78 31 26 (Ana).

• **Gudari Eguna ospatuko dute etzi, eguaztena**
Etzi, eguaztena, Gudari Eguneko ekitaldiak egingo dituzte. Herriko Plazan batuko dira, 19:00etan.

• **1943. urtean jaiotako emakumeen batzarra**
Urriaren 7an ospakizuna egingo dute Hilarion jatetxean. Parte hartzeko, 20 euro ordaindu behar dira Muruamendiaraz gozotegian.

• **Katekesi eskoletan izenematea gaur hasi da**
Santa Teresako lokaletan katekesia emango dute. Lehenengo mailako izenematea gaur, astelehena, eta bihar, martitzena, egingo dute: 17:00-18:00.

**BERGARA** |

• **Bi ikastaro antolatu berri ditu Udal Kultura Sailak**
Sendabelarrak ezagutzeko eta altzariak zaharberritzeko ikastaroak antolatu dituzte, urrian hasteko. Izenematea zabalik dago kultura etxean.

• **Bertako euskara eta etorkinendako euskara**
Bertako euskara lantzeko ikastaroak antolatu dituzte Bergarako Udal Euskara batzordeak eta Udal Euskaltegiak, Gehixago eta Hobeto programaren barruan. Urriaren 5a da izena emateko azken eguna. Eskolaz kanpoko euskara eskolak ere antolatu dituzte, 16 urte bitarteko etorkinendako. Argibideak: 943 76 36 61.

• **Katekesia San Pedro parrokiako umeendako**
Urriaren 3, 4 eta 5ean hasiko da. Egun horietan erosi ahalko dira liburuak eta umeei fitxa egin. Urriaren 3a 2. eta 6. mailakoen txanda izango da. 4a, 4. mailakoena eta 5a, 3. eta 5. mailakoena.

• **Gudariei ohore egingo diete eguaztenean, hilak 27**
Gudariei omenaldia egingo diete etzi, 19:00etan, Munibe plazan. Ekitaldia bertsolariez, trikitilariez eta txalapartaz lagunduta egongo da.

• **Udal Euskaltegian izena emateko aukera dago**
Udal Euskaltegian zabalik dago izena emateko epea. Zabalotegi kaleko 13. zenbakian dago. Argibideak: 943 76 44 53.

**DEBAGOIENA** |

• **Baserri inguruko plastikoak batuko dituzte**
Baserrian erabilitako plastikoak batuko ditu Deba Garaia landa garapen elkarteak bihar, martitzena. Ohiko lekuetatik pasatuko dira. Argibideak: 943 76 25 47.

• **Aisialdiko begirale eta zuzendari titulua ateratzeko**
Titulu hori ateratzeko ikastaroa antolatu dute Debagoieneko euskara elkarteek. Argibideetarako: 943 79 54 46 (Txatxilipurdi) eta 943 76 08 19 (Jardun).

**OÑATI** |

• **Unibertsoko planeten eta bizitzaren gaineko berbaldia**
*Planetas y vida en el Universo* delako hitzaldia egingo du Agustin Sanchez Lavega katedradunak bihar, martitzena, kultura etxean, 19:00etan.

# Iritziak



## Isilpekoak

**943 25 05 02**

**goienkaria@goiena.com**

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

**• Oñatin pediatria zerbitzu barik**

Irakurle batek oharra utzi nahi du Oñatiko anbulatorioko pediatria zerbitzuaren egoeraren inguruan. Azaltzen duenez, Oñatin bi pediatra egon ohi dira lanean, baina hainbat arrazoirengatik horietako batek denbora batez lana utzi eta geratzen den beste medikua medikuntza orokorrekoa da, ez haurretan espezialista. Horixe da irakurlearen kexua. Batez ere, "udazkenera begira", dio, "birusen bat edo baldin badator mediku bakarrarekin ezingo diote aurre egin eskaerari". Gainera, "ohikoan ere nahiko motz geratzen da zerbitzua eta komenigarria litzateke beste mediku pediatra bat ekartzeko pentsatzen hastea, lana pilatu baino lehen".

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

## Sarean harrapatuta

### Zeren gaineko eskultura jarriko zenuke Biteri plazan?

**Arrasateko Udalak Biteri plazan kooperatibismoaren gaineko eskultura bat jartzeko asmoa du. Horretarako deitu dute eskultura lehiaketa eta lanen artean aukeratzeko aukera izango dute herritarrek. Hala ere, zenbait herritarrek Biteriren omenezko eskultura jartzea eskatu dute. Eztabaida piztu da Arrasaten eta gaiaren gaineko galdera egin dute *Goiena.net*-en. Hemen jaso ditugu iritzi batzuk.**

**BITERIRENA ETA IRABAZLEAREN A JARRI**

Nire ustez lehen zegoen eskultura jarri beharko litzateke berriz. Agian berritu eta txukunduta ondo geratuko litzateke. Hala ere, boto gehien jasotzen duen egilearen eskultura ere jarriko nuke plazan. Horrela bi eskultura egongo lirateke ikusgai. Gainera, lehiaketan parte hartu duten artistek ilusio handia erakutsi dute eta uste dut legezkoa dela irabazlearen eskultura bat jartzea Biteri plazan.

Miren / www.goiena.net

**KOOPERATIBAK EMATEN DIGU JATEN ASKORI**

Entzun dut Biteriren gaineko eztabaida hori, baina nire ustetan kooperatibaren omenezkoa izan behar da han jarritako eskultura. Kooperatibak ematen digueta herritar askori jana herri honetan.

Beste bat Biterirena izan behar bada, ba aurrera. Ez daukat horren gaineko kexarik eta gustura ikusiko ditut bi eskulturak plazan.

Xabi / www.goiena.net

**BITERIREN LEKUAN EZ JARRI BESTEA**

Xabirekin ados nago eta baita Mirenekin ere. Biterik herriaren eta herritarren alde egin zuen, beste gauza batzuen artean, ekonomikoki hainbat ekimen aurrera ateratzen. Eta herrian horrelako ekimenak egin dituzten pertsonak gogoan eduki behar direla uste dut. Gura dena ipin dezatela plaza berri horretan, baina ez Biteriren omenezko eskultura zegoen lekuan.

Iker / www.goiena.net

**ESKULTURA BAI; EZ BITERIREN LEKUAN**

Biteri plazari Biteriren omenezko eskultura tokatzen zaiola uste dut. Lehen bazegoen eta ez dakit zein arrazoi egon zen hura kentzeko, baina berriz bere lekuan jartzeko eskatuko nieke udaleko agintariei. Era berean, beste eskultura bat jarri nahi badute, jar dezatela, baina ez bestearen lekuan.

Egia da kooperatibek herritar askori eman dietela jaten eta agian mereziko du eskultura bat. Arrasate kooperatiben munduan erreferentzia da eta horren gaineko eskultura bat ondo ikusten dut, baina ez beste baten lekuan.

Jors / www.goiena.net

**BITERIREN ESKULTURA JARRIKO NUKE**

Nik uste dut herritarren bozketan irteten dena egin beharko dela. Hala bada Biterik irabaziko du, momentuz boto asko jaso dituela entzun dut-eta. Hori baldin bada herritarren nahia, hori egin beharko litzateke, ez? Beti ezin izaten da egin guztiek nahi dutena, baina kasu honetan justua izango litzake bozketan irteten dena jartzea eta udalak horri egin beharko lioke kasu.

Leiretxu / www.goiena.net

**GAZTEEK BITERI NOR IZAN ZEN IKASTEKO**

Ni gogaituta nago kooperatiben aldeko kontuak entzuten eta ez dut uste halakorik merezi duenik. Kooperatiben aurretik, Zerrajera eta Elma ere egon ziren eta horiek ere jende askori lana eman zieten sasoi batean. Zergatik ez enpresa horiei ere eskultura egin?

Bestalde, Biterik hezkuntzaren alde ikaragarrizko esfortzua egin zuen filantropoa izan zen eta komeniko litzateke gaur egungo jendeak ere jakitea nor izan zen. Horretarako, bere omenezko eskulturaren bat jarri (lehengoa edo berri bat) eta gaur egungo belaunaldiei jakinarazi behar zaio nor izan zen Biteri.

Joxe Mari / www.goiena.net

## Halaxe erantzun digute

### EAEko langileek lanordu gutxien eta soldatarik altuenetakoak dituztela atera du argitara INEk. Zer deritzozu horri

?



**JON GARATE** | LAB SINDIKATUA

Ordu nurrizketa langileriaren lorpen bat bezala ulertu behar da, beti egon da-eta borroka handia hemen, eta horren ondorioa da. Soldatenari buruz, esaten da metalurgian, adibidez, Estatuko hitzarmenik onena daukagula, baina ez da ahaztu behar hemen bizitza garestiagoa dela.



**EGOITZ ITURBE** | ELA SINDIKATUA

Gure iritziz, soldataren batez bestekoak erakusten duena da oso gaizki banatuta dagoela, ze metal arlokoek hitzarmen ona baitaukate, baina zerbitzuetakoek ia erdia irabazten dute. Lanorduen kontua sindikalismoaren lorpena da, Estatuan baino lan txukunagoa egin da hemen.



**EDUARDO ZUBIAURRE** | ADEGIKO LEHENDAKARIA

Gipuzkoak du, batez ere industriagintzan, Estatuko lanaldi laburrena, historikoki garapen industrialarengatik. Egoera horrek enpresen lehiakortasuna baldintzatzen du eta produktibitatea areagotu beharra dakar, merkeago ekoizten dutenen aurrean.



**ESTEBAN SANCHEZ** | ARRASATE HOTELEKO ZUZ.

Ostalaritzako sektoreko hitzarmena hobetzea lortu den arren, lanaren berezitasunarengatik eta soldatengatik bestelakoa da egoera, batez bestekoaren azpian dago, eraikuntza sektorekoak baino beherago. Oraindik hitzarmenetan asko dago egiteko gure alorrean, lan arlo guztietan.

## Egunkarietako harribitxiak

**GORRAMENDIKO BELARRIAK**
1954-1974 urteen bitartean, AEBetako armadak alerta eta kontrol-gunea izan zuen Gorramendian (Nafarroa), aire-zirkulazioa kontrolatzeko; 1976an leherrarazi zuten, baina hondakinak han daude oraindik, jaso gabe. Hondakinok bildu eta eramateko ardura hartu du Nafarroako Gobernuak.

**'Berria'**
2006-09-24


GORRAMENDIKO BELARRIAK

HONDAKINAK BILDUKO DITUZTE

**GASTU MILITARREK ERREKORRA EGINGO DUTE AURTEN**
Britainia Handiko Intermon-Oxfam gobernuz kanpoko erakundeak egindako txosten batean salatu du gastu militarrek errekorra egingo dutela 2006. urtean: 835.000 milioi euro. Hau da, nazioarteko laguntza humanitariora bideratutakoa edo Gerra Hotzean gastatu zena baino hamabost aldiz gehiago. Gobernuz kanpoko erakundeak erakutsi du azterketa hori, Nazio Batuetako zazpi kide –tartean Britainia Handia– ari direnean Batzar Orokorrari laguntza eske. Nahi dute arma salmenta debekatzea giza eskubideak urratzen dituzten, genozidioa egiten duten eta armak bahitzen dituzten herrialdeei. GKE horren esanetan, armak dira gatazkak eragiten dituztenak eta munduan dagoen gosearen iturri.

**'Gara'**
2006-09-24


MUNDUA

Los gastos militares en 2006 alcanzarán una cifra récord, más que en la Guerra Fría

## Tira, tira...




- Aznarrek dio musulmanek ez dutela barkamenik eskatu Espainia konkistatzeagatik.

**Argote** 'Noticias de Gipuzkoa' | 2006-IX-24

## Zorroztailea



# Zertan ari gara?

*"Inori ez dio ihes egiten guztiz zaila denik kolektibo baten jokaerak, buruko egiturak, sozializazio moduak eta abar aldatzea, kolektibo horrek, beste herritarrekin lekua konpartitu arren, bere mundu paraleloa sortu eta urteetan zehar elikatu duenean".*

**Jose Ibarrola Sabel Urkijo (Bakearen Aldeko Koord.)**

**'El Correo'** | 2006-09-24

Jabier Arantzeta

Eta horrela jarraitzen du Ibarrola jaun horrek honen izenburuko bereko artikuluan, ezker abertzaleak norantz eta nola aldatu behar duen aipatuz, ezker abertzalea bailitzan mundu paraleloa sortu duen bakarra.

Garbi dago horrentzat bake prozesuak aurrera egin dezan nork zer egin behar duen, eta garbi dauka modu berean, mundu paraleloa ezker abertzaleak sortu duela, paraleloa ez den mundua eurena dela eta denok mundu horretara jo behar dugula.

Bada ez, Ibarrola jauna, mundu paralelorik badago, eta horretan nik ez dut inolako zalantzarik, mundu paralelo guztiz horiek egin behar dute elkarrengana esku artean dugun bake prozesuak aurrera egin dezan. Ez goaz inora Maria San Gilek aipatzen duen ETAren aurkako garaipenarekin, eta ez goaz inora atzo, zapatuan, Oiartzunen agertutako txano eta armadunen berbekin ere "armak eskutan borrokan tinko jarraitzeko konpromisoa berresten dugu".

Txarren-txarrena da guzti horiek hor jarraitzen dutela, bai batzuk eta bai besteak zeharo sinistuta etsaia garaitutakoan dena aldatuko dela. Ez dira konturatzen, orain arte ere, etsaia garaitzeak etsai berriak sortzeko besterik ez duela balio izan, mundu paraleloak paralelo izaten jarraitzen dutela (eta gaitzerdi paralelo direnean eta ez elkarren aurkako).

Ea noiz konturatzen garen guztiok bake prozesu honek zentzurik izan dezan denok, edo behintzat ahalik eta gehienok, parte hartu behar dugula, denok ezagutu eta errespetatu behar ditugula besteen mundu horiek, eta besteek guk sortu dugun mundua errespetatzen ez badute, hori ez dela aitzakia guk eurena ez errespetatzeko, guri gustatu edo ez, besteen mundu hori ere egon hor dagoelako.

**"Ez goaz inora San Gilek aipatzen duen ETAren aurkako garaipenarekin, ezta Oiartzunen agertutako armadunen berbekin"**

**"Ea noiz jabetzen garen guztiok bake prozesu honek zentzurik izan dezan denok, edo gehienok, parte hartu behar dugula"**

## Egunkarietan irakurri dugu

### 'El Diario Vasco'

**ELKARRIZKETA**

"Nafarrek une honetan nahi dutena zer den badakit, baina hemendik 100 urtera zer nahiko duten ez. Izan ere, nahi dutena izan beharko dute. Euskal kultura gailenduko da ala gaztelaniaduna? Herritarrek nahi dutena. Nik nahi dudana da eman daitezela elkar bizitzeko baldintza onak herritarrek demokratikoki erabaki dezaten norantz jo".

**Fernando Puras**
2006-09-24

### 'Gara '

**ELKARRIZKETA**

"Nik uste dut eraginik handiena, kasu honetan, euskarak izan behar duela. Guk marka horrekin egingo dugu lan, eta horrela bideratuko dugu lizentzien banaketa. Seguruenik, denborak esango du ziurtatzen ari garela eskualde guztietan euskarazko telebista egon dadin. Marka hori da ezaugarri nagusia; horrek ematen dio indarra taldeari".

**Joanmari Larrarte**
2006-09-24

### 'Berria'

**FENOMENOA**

Gaztelaniaz denek erabiltzen dute *kale borroka*. Euskaldunok, ordea, bitxitasunaren marka guztiak hausten baititugu, *kale borroka* espresioaz gain, *kale istiluak*, *kale indarkeria*, *kale erasoak* (...) bezalakoak darabiltzagu fenomeno bera izendatzeko. Zerekin ez gaude konforme, fenomenoarekin ala fenomenoa izendatzeko moduarekin?

**Anjel Lertxundi**
2006-09-24

### 'Noticias de Gipuzkoa'

**ELKARRIZKETA**

"Ibarretxeren adiskidetze planaren gauzarik deigarriena da heldu egin diela normalean albo batera lagatzen diren gaiei arantzatsuak izaten direlako. Jendeak ez du nahi izaten biktimen gainean berba egitea, iraganaz... Eta hala ere, azpian, gai horien gainean eztabaidatzeko gogoa dago. Munduak Euskal Herriarengandik ikas dezake".

**Fernando Puras**
2006-09-24

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Erredakzioa** Mireia Bikuña, Jon Berezibar, Arantzazu Ezkibel eta Goreti Elortza

**Jatorrizko diseinua** Goio Arana | **Maketazioa** Imanol Soriano | **Maketazio laguntzailea** Oxel Arrieta | **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate | **Publizitate arduraduna** Gotzon Arzelus | **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe | **Harpidetza eta banaketa arduraduna** Marta Leturia | **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
**Presidentea** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Iñazio Arregi

LAGUNTZAILEA
Gipuzkoako Foru Aldundia

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# KIROLA

• 24. San Migel eskubaloi txapelketan Aloña Mendi izan zen garaile | 14
• Oñatiko txirrindularitza saria Pablo Torres galiziarrak irabazi zuen | 17



Porfirio Fisac Bruesako entrenatzailearekin izan gara Labegaraietan | 16

PREFERENTE MAILA

**UDA**
# 1-3
**HERNANI**

**UDA** | Eriz, Bellido, J. Gonzalez, I. Gonzalez, Arenatza (15. min. Alustiza) (65. min. Robles), Ruben, Iñaki, Igartua, Arriaga (72. min. Kepa), Eriko eta Imanol (60. min. Espinosa).

**Hernani** | Gari, Aginagalde (72. min. Mikel), Arca (71. min. Bakero), Beñat, Zabala, Zapiain, Portillo, Urretabizkaia, Hodei (62. min. Olasagasti), Sorondo (60. min. Peru) eta Kijera.

**Golak:** | 1-0, Arriagak (40. minutuan). 1-1, Urretabizkaiak (42. minutuan). 1-2, Urretabizkaiak (58. minutuan). 1-3, Portillok (70. minutuan).

**Epailea** | Martinez jauna. Ez zuen arazorik izan partidua zuzentzeko.

**Bestelakoak** | Porrotaren ondoren zaleak nahiko triste atera ziren futbol zelaitik.

## Bikain

**Igor Arriagaren gola**
Iaz 24 golekin preferente mailako golegile nagusia izan zen Igor Arriaga. Atzo egin zuen denboraldiko lehen gola. UDAk bere golak behar ditu partiduak irabazteko.

## Kaskar

**Punturik gabe**
UDA da preferente mailan punturik ez duen talde bakarra. Liga hasierako hiru partiduak galdu ondoren –haietatik bi etxean–, lana gogotik egin beharko dute Felix Reciok eta jokalariek aurrerantzean.

## Esandakoak

"Partiduaren gakoa berdinketaren golean egon da; atsedenera abantailarekin iritsi izan bagina...".

"Hasierako hiru partiduak galtzea ez zen gure egitasmoetan sartzen; lanean segitu beharko dugu".

**JABIER ETXEBERRIA** | UDA-KO DELEGATUA



JOSETXO ARANTZABAL

Argazkian, UDAko jokalari Ibon Gonzalez Hernaniko jokalari baten alboan, baloia gidatu nahian.

**FUTBOLA** | PREFERENTE MAILAKO HIRUGARREN JARDUNALDIKO PARTIDUA JOKATU ZEN

# Markagailuan aurreratu arren, UDAk galdu egin zuen

*Arriagak egin zuen UDArendako lehen gola; bi minutu geroago Hernanik berdinketa lortu zuen eta beste golak bigarren zatian etorri ziren*

Mireia Bikuña

Preferente mailako hirugarren jardunaldia jokatu zen atzo Ibarra futbol zelaian eta UDAk hirugarren partidua jarraian galdu zuen. Markagailuan aurreratu arren, Felix Recioren taldeak galdu egin zuen.

Partidua nahiko motela izan zen UDAren aldetik. Joko garbirik gabe aukerak sortzen saiatu ziren UDAko jokalariak. Hala, 29. minutuan Erikok aukera garbia izan zuen atezainaren aurrean bakar-bakarrik geratu zenean. Haren errematea Hernaniko atezainak geratu zuen. Minutu bat geroago hernaniarrek izan zuten gola egiteko aukera.

Atsedenaren aurreko minutuak izan ziren lehen zatiko onenak. 40. minutuan, Hernaniko jokalari batek atezainari baloia emateagatik falta adierazi zuen area barruan. Igor Arriagak bikain sartu zuen baloia ate barrura. Ibarran bilduta zeuden zaleek pozik hartu zuten gola: denboraldiko lehen gola.

Baina bi minutu geroago Hernaniko jokalari Urretabizkaiak berdinketa lortu zuen. Bada, kolpe gogorra izan zen UDAko jokalariendako. Berehala amaitu zen lehenengo zatia.

**Defentsako lanean huts gehiegi egin zituen UDAk Hernaniren aurka**

**Preferente txapelketan jokatutako hiru partiduak galdu ditu UDAk**

**HIRUGARREN GOLA PENALTIZ**
UDAk nahitaezkoa zuen garaipena eta bigarren zatian aurrera egin zuen. Baina defentsan huts gehiegi egin zituzten aretxabaletarrek.

Halaber, erasoan Hernani finago aritu zen. Bigarren gola 58. minutuan lortu zuten, Sorondok egindako erdiraketa bikain errematatu zuen-eta Urretabizkaiak. Zelaira irten eta berehala Iban Espinosak jokaldi ona egin zuen. Area barruraino sartu zen, baina erdiraketak ez zuen errematatzailerik aurkitu.

Hirugarren eta azken gola penaltiz lortu zuen Hernanik. Urretabizkaiari falta egin zioten eta epaileak penaltia adierazi zuen. Portillok egin zuen gola.

Hala, partidu amaieran berriro ere UDA galtzaile.

PREFERENTE MAILA



JOSETXO ARANTZABAL

Iñigo Idigorasi ez zioten atea zulatu atzo.

# Berdinketa merezi izan zuen Mondrak Atxabalpen

MONDRA
0-1
IDIAZABAL

Mireia Bikuña

Mondrak ezin izan zuen zapatuan garaipenik lortu preferenteko hirugarren jardunaldian. Idiazabalek trebetasun hobea izan zuen gola egiteko orduan. 75. minutuan Alexek egin zuen.

**PARTIDU GRISA**

Mondrak izan zuen minuturik gehienetan jokoaren kontrola. Hala, ezkerretik Zubikaraik eta eskuinetik Andonik jokaldi politak egin zituzten.

Mondrak eta Idiazabalek, biek ala biek, izan zituzten golak egiteko aukerak. Idiazabalek talde sendoa zuela erakutsi zuen eta kontraerasoan izandako aukerak aprobetxatu zituzten gola egiteko.

Gordobilen taldeak merezitako berdinketa lortzeko aukerak izan zituen, baina gol barik, ez dago punturik.

# Garaipen lehiatsua Aloñak etxean eskuratutakoa

ALOÑA MENDI
1-0
TOURING

**Aloña Mendi** | Idigoras, Losada, Elgarresta, Idigoras (Henry, 72. min.), Garai (Zubia, 85. min.), Arregi I (Arregi II, 72. min.), Garmendia (Astola, 67. min.), Barrena, Lopez, Astigarraga (Aramendi, 75. min.) eta Olalde.

**Touring** | Urrutia, Martinez, Mugo, Sanchez, Zelikueta, Ferrero (Villasante, 61. min.), Solana (Neves, 56. min.), Gomez, Ausmendi, Galarza (Crespo, 56. min.) eta Carrillo (Beloki, 56. min.).

**Golak:** 1-0, Jon Astigarraga, 50. min.

**Epailea:** Petrikorena jauna.

Arantzazu Ezkibel

Beharrezkoak zituen Aloñak jokoan zeuzkan hiru puntuak. Eta ez zuen hutsik egin. Bigarren zatian Astigarragak sartutako gol bati esker, Aloñak lasaitasuna eskuratu zuen.

"Behetik ateratzeko beharrezkoa genuen etxean irabaztea. Atea hutsik mantentzeak konfiantza izugarria emango digu", adierazi zigun Aitor Orueta Aloñako entrenatzaileak partidu amaieran.

**PARTIDU LEHIATSUA**

Atzo Azkoagainen ikusitako partidua oso lehiatsua izan zen. Bi taldeak ondo kokatuta zelairatu ziren eta atzealdea ondo zaindu zuten. Baloiaren kontrola etxekoen esku egon zen momentu gehienetan, batez ere lehenengo zatian, baina arriskuko aukerarik sortu gabe.

Lehenengo gola egiteko aukera paregabea Roberto Idigorasek izan zuen 20. minutuan. Area barruan Astigarragak emandako pasea jaso zuen, baina kontrola gaizki atera zitzaion.

Gola bigarren zatian etorri zen. Robertok Astigarragari pasea eman eta hark atezainaren aurrean baloia sare barruan sartu zuen. Bazanek, partidua amaitzeko minutu gutxi falta zirela, norgehiagoka erabakitzeko aukera izan zuen; areaz kanpotik jaurti eta baloia langara joan zitzaion jokalari oñatiarrari.

## Emaitzak eta sailkapenak / Preferente maila

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| UDA-Hernani | 1-3 |
| Hondarribia-Pasaia | 0-0 |
| Ordizia-Martutene | 2-1 |
| Aurrera-Urola | 0-0 |
| Zestoa-Mutriku | 2-1 |
| Aloña Mendi-Touring | 1-0 |
| Zarautz-Anaitasuna | 0-2 |
| Trintxerpe-Berio | 1-1 |
| Mondra-Idiazabal | 0-1 |

**HURRENGOAK**

Hernani-Hondarribia
Pasaia-Ordizia
Martutene-Aurrera
Urola-Zestoa
Mutriku-Aloña Mendi
Touring-Zarautz
Anaitasuna-Trintxerpe
Berio-Mondra
Idiazabal-UDA

**SAILKAPENA**

| | Puntuak | J | I | G | B | GA | GK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1.**Ordizia** | **09** | 3 | 3 | 0 | 0 | 6 | 2 |
| 2.**Anaitasuna** | **07** | 3 | 2 | 0 | 1 | 6 | 2 |
| 3.**Zarautz** | **06** | 3 | 2 | 1 | 0 | 5 | 4 |
| 4.**Hernani** | **06** | 3 | 2 | 1 | 0 | 7 | 3 |
| 5.**Idiazabal** | **06** | 3 | 2 | 1 | 0 | 2 | 2 |
| 6.**Touring** | **04** | 3 | 1 | 1 | 1 | 5 | 3 |
| 7.**Urola** | **04** | 3 | 1 | 1 | 1 | 2 | 2 |
| 8.**Berio** | **04** | 3 | 1 | 1 | 1 | 4 | 4 |
| 9.**Trintxerpe** | **04** | 3 | 1 | 1 | 1 | 3 | 2 |
| 10.**Hondarribia** | **04** | 3 | 1 | 1 | 1 | 2 | 2 |
| 11.**Pasaia** | **04** | 3 | 1 | 1 | 1 | 1 | 3 |
| 12.**Zestoa** | **04** | 3 | 1 | 1 | 1 | 3 | 5 |
| 13.**Aurrera** | **03** | 3 | 0 | 0 | 3 | 3 | 3 |
| 14.**Martutene** | **03** | 3 | 1 | 2 | 0 | 4 | 5 |
| 15.**Mondra** | **03** | 3 | 1 | 2 | 0 | 1 | 3 |
| 16.**Aloña Mendi** | **03** | 3 | 1 | 2 | 0 | 2 | 5 |
| 17.**Mutriku** | **01** | 3 | 0 | 2 | 1 | 2 | 5 |
| 18.**UDA** | **00** | 3 | 0 | 3 | 0 | 1 | 5 |

1. erregionala

# Gol bakarra nahikoa izan zen partidua irabazteko

BERGARA
1-0
PEDRUSCO

Arantzazu Ezkibel

Bergarak etxean jokatutako lehenengo partiduan hiru puntuak eskuratu zituen. Partidua eskasa izan zen joko aldetik, baina bigarren zatian egindako gol bati esker etxean geratu ziren puntuak.

Nekak talde gaztea zelairatu zuen Agorrosinen. Elgoibarko Pedruscok, ordea, talde beteranoarekin jokatu zuen eta jokaldi eztabaidagarrietan nabaritu egin zen hori.

**JOKALDIAK AMAITU GABE**

Lehenengo zatian jokoa nahasia izan zen. Baloiaren jabetza etxeko taldearen esku egon zen, baina inolako gol arriskurik sortu gabe. Jokaldiak amaitu gabe geratzen ziren, eta jaurtiketak egin gabe ez dago golik sartzerik.

Epaileak ere bere momentua izan zuen partiduan: Elgoibarko jokalari bati bigarren txartela ateratzeko adorerik ez zuen izan, eta Agorrosinen bildutako ikusleen txistuak jaso zituen.

**LEHENENGO GOLA**

Bigarren zatian zelairatu zen Markelek egin zuen partiduko gol bakarra; Bergarak aurtengo denboraldian egindako lehenengoa.

Area kanpotik egindako jaurtiketa bat atezainak alderatu eta Markelek, area txikian, baloia sare barrura sartu zuen. Nahikoa izan zuen Bergarak gol hura partidua irabazi eta hiru puntuak eskuratzeko.



JOSETXO ARANTZABAL

Markelek bizitasuna eman zion Bergarari bigarren zatian.

• 'PITXI' HERREROREN OMENEZKO PARTIDUAK ARRASATEN

# Egia tañdeak bigarren zatian irabazi zuen Ford Mugarriren aurkako lagun arteko partidua

*Arrasateko taldeak atsedenean zuen bost goleko errenta galdu egin zuen bigarren zatian*

Mireia Bikuña

Azken orduko aldaketekin jokatu ziren zapatuan *Pitxi* Herreroren omenezko partiduak. Hiru partidu jokatu ziren: kadete mailan Arrasateren eta Aloña Mendiren arteko partidua eta lehenengo territorialean eta Euskadiko Txapelketan, Arrasateren eta Egiaren arteko lehia bikoitza.

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
Arratsaldeko azkeneko partidua baina ikusleendako erakargarriena Euskadiko Txapelketa jokatuko duten Ford Mugarrik eta Egiak jokatu zuten.

Bi zati oso ezberdinak izan zituen partiduak. Bai, behintzat, markagailuak izandako aldaketa ikusita. Hasieratik ikusi zen bi taldeak oraindik denboraldiaurrean daudela. Hala, erasoan hutsuneak topatzea kosta egiten zitzaien. Bada, partidua nahiko parekatua izan zen. Atsedenera iristeko bost minutu falta zirela, Ford Mugarrik lau goleko errenta hartu zuen markagailuan, 12-8. Eta aldageletarako bidea hartu aurretik aldea handitzea lortu zuten. Atsedenean, Ford Mugarri zen nagusi, 15-10.

Bigarren zatia, baina, oso bestelakoa izan zen. Donostiarrek lau gol egin zituzten jarraian eta markagailuan 15-14 jarri ziren.

Bada, Ford Mugarri gai izan zen bere errenta mantentzeko, 10. minutu arte. Orduan lortu zuen Egiak lehia berdintzea: 18-18. Minutu haietan jokoa nahastu egin zen eta Donostiako taldeak atera zion etekin handien. 13. minutuan markagailuan aurretik jarri ziren (19-20) eta errenta amaiera artea mantendu zuten. Hala, bukaerako emaitza izan zen 30-31 donostiarren alde.

Bestalde, liga txapelketa asteburuan hasi aurretik, bihar, astelehena, denboraldi-aurreko azken partida jokatuko dute Elgoibarren aurka. Iturripen izango da, 20:30ean.

Halaber, Euskadiko Txapelketa etxean hasiko du Beñardo Balerdiren taldeak. Zapatuan Iturripen jokatuko dute Portugaleteren aurka, 18:30ean.

**BESTE PARTIDUAK**
Euskadiko Txapelketa jokatuko duten bi taldeen partiduaren aurretik, *Pitxi* Herreroren omenezko beste bi norgehiagoka jokatu ziren Iturripe kiroldegian.


JOSETXO ARANTZABAL
Lehenengo territorialeko taldeak Egiaren aurka jokatu zuen 'Pitxi' Herreroren omenezko partidua.

Lehenengo territorialeko partiduan ere, Arrasatek eta Egiak jokatu zuten. Eta partidu parekatua jokatu ondoren, etxeko taldeak irabazi zuen, 18-16. Lehenengo territorialeko taldeak urriaren 8an hasiko du liga txapelketa. Iturripen jokatuko du, Tolosaren aurka.

**Ford Mugarrik zapatuan hasiko du liga txapelketa, Portugaleteren aurka jokatuko du.**

Azkenik, Andoni Arandok zuzentzen duen kadete mailako taldeak, Gatz Museoa Jakionek, Aloña Mendiaren aurka jokatu zuen. Justu-justu, baina lagun arteko norgehiagokan oñatiarrek irabazi zuten, 21-23.

• 24. MIKEL DEUNA TXAPELKETA, OÑATIN

# Bai neskak eta bai mutilak txapeldun etxean jokatutako txapelketan

*Neskek Ermua izan zuten aurrean; talde indartsua erakutsi zuten*

Arantzazu Ezkibel

Aurtengo Mikel Deuna txapelketako sariak etxean geratu dira. Nesken finalean, erraz nagusitu ziren oñatiarrak Bizkaiko Ermua taldearen aurka (16-12). Mutilen finalean, ordea, Aloña Mendik azken unean hartu zuen mendean Bergarako taldea. Azkenean, baina, etxekoak izan ziren nagusi, 20-18.

**NESKAK, ERASOAN GOGOR**
Joan den astean finalerdietako norgehiagoka Leioako Askartza taldeari irabazi ondoren, Aloñak, atzo, Ermua izan zuen aurrean. Partidu gogorra izango zela aurreikusten zen, bi taldeak defentsan ondo aritzen dira-eta.

Kantxan, baina, etxeko taldea jaun eta jabe izan zen. Oñatiarrek defentsa ona dutela erakutsi zuten, baina, batez ere, eraso gogorra izan zen partidua irabazteko giltza.

Ane Barrena eta Ane Herrero izan ziren golegile nagusiak; bakoitzak seina gol sartu zituen. Aipatzekoa da bi jokalari gazte hauen lana. Bai barneratzeetan eta bai kanpoko jaurtiketetan oso ondo aritu ziren, eta bizkaitarren defentsa hankaz gora jarri.

Atsedenean 6-8 ziren aurretik etxekoak. Bigarren zatian, lehenengo 15 minutuetan 9-1eko partziala izan zuten alde. Azkenean, lasaitu egin ziren eta 16-12 bukatu zuten norgehiagoka.


JOSETXO ARANTZABAL
Nesken taldeak datorren astean hasiko du liga Leizaranen aurka, Andoainen.

**SARI BANAKETA**
Partiduaren ostean, sari banaketa izan zen Zubikoa kiroldegian. Jokalari onenaren saria Ane Barrenak jaso zuen. Txapeldunaren saria ere Barrenak berak jaso zuen, taldeko kapitaina da-eta. Eta Ermuak txapeldunordearen saria jaso zuen.

Sari banaketa amaitutakoan, mutilen norgehiagokari eman zitzaion hasiera. Partidu berdindua izan zen, derbi guztien antzerakoa. Azkenean, etxeko taldea 20-18 nagusitu zen eta garaikurra eraman zuten oñatiarrek. Jokalari onenaren saria Iker Lanasek jaso zuen.

• KADETE MAILA, NESKAK




JOSETXO ARANTZABAL

Eskoriatzako jokalari bat baloia kontrolatu nahian.

# Nagusitasun osoz irabazi zuen Eskoriatzak etxean

*Denboraldiko lehenengo partiduan joko ona egin zuten eskoriatzarrek; lehenengo bi puntuak eskuratu zituzten*

Arantzazu Ezkibel

Zapatu arratsaldean Intxaurtxueta kiroldegian partidu polita jokatu zen. Etxeko taldeak, ligako lehenengo partiduan, 54-16 irabazi zion Donostiako Salletarrak taldeari. Gainera, garaipena ez zen nolanahikoa izan. Egia da ligako lehenengo partidua besterik ez zela izan, baina garaipenak garaipen dira.

**HASIERATIK ABANTAILA HANDIA ETXEKOEN ALDE**

Partiduak ez zuen inolako zailtasunik izan etxeko taldearentzat. Eskoriatzako neskak gogor hasi ziren eta markagailuan abantaila handitxoa hartu zuten lehenengo laurdenean. Donostiarrak lasai atera ziren eta hori igarri egin zen lehenengo zatian erakutsitako jokoan.

Etxekoak, berriz, Intxaurtxuetako kiroldegian jaun eta jabe izan ziren eta lortutako abantaila hori mantendu besterik ez zuten egin.

Aldagelatik bueltan, partiduak berdintsu jarraitu zuen. Eskoriatzakoak defentsan ondo aritu ziren, aurkariari taula azpian jaurtiketa erosoak egiten utzi gabe. Gainera, erasoan fin aritu ziren. Kontraerasoko jokaldietan min handia egin zion Eskoriatzak Donostiako taldeari.

**DENBORALDI GOGORRA**

Hasiera polita izan den arren, zaila izango da aurtengo denboraldian maila oneko partiduak ikustea. Talde gogorra egokitu zaio Eskoriatzari. Hala, sailkapeneko lehenengo postuan jarri den Azpeitiko Ipar Project taldeak 82 puntu egin zizkion Donostiako Aldapeta taldeari. Datorren astean, Eskoriatzako neskek Aietera egingo dute bisita.

# Saskibaloi txapelketako lehen partiduak irabazi zituzten arrasatearrek

*Gros Xake taldearen aurka hasi zuten liga txapelketa gazte eta kadete mailetako taldeek, eta arazo barik irabazi zuten*

Mireia Bikuña

Liga hasiera bikaina egin zuten asteburuan Arrasateko saskibaloi taldeek. Etxetik kanpo irabazi zuten gazte eta kadete mailetako taldeek.

**KADETE MAILAKO TALDEA**

Liga hasten goiztiarrenak kadete mailako mutilak izan ziren. Gros Xakeren aurka jokatutako norgehiagoka bigarren laurdenean erabaki zen, laurden hartan markagailuan tartea zabaldu zuten-eta. Azken bi laurdenetan, baina, donostiarrak saiatu egin ziren aldea murrizten, baina ez zuten lortu. Hala, Ford Mugarrik irabazi zuen: 63-75.

**GAZTEAK, ARAZO BARIK**

Askoz samurragoa izan zen gazte mailako taldeak jokatutako partidua. Gros Xake taldea markagailuan aurretik jarri zen arren (5-0), lehenengo laurdenaren amaieran Mugarri Alkesak erabakita utzi zuen lehia: 14-34. Markagailuko abantaila eta arrasatearrek defentsan egindako lana nahikoa izan ziren garaipena lortzeko: 38-99.

• AURKEZPEN EKITALDIA



MIREIA BIKUÑA

**ESKORIATZAK KAMISETA BERRIAK AURKEZTU ZITUEN**

Eskoriatza kirol elkarteak hastear dagoen denboraldi berrian erabiliko dituzten kamiseta berriak aurkeztu zituen atzo goizean Intxaurtxueta kiroldegian. Areto futboleko eta saskibaloiko jokalariek egin zituzten argazkiak kamiseta berriekin. Hain zuzen ere, Eskoriatza kirol elkarteak areto futboleko hiru talde eta saskibaloiko beste hiru izango ditu lehian.

• IBARREKO TALDEAK LIGA BERRIAREN AURREAN

# Iazko denboraldia gogoan, Mugarri Alkesak Bilbon hasiko du liga zapatuan

Arantzazu Ezkibel

Ibarreko talde nagusiek datorren hastean hasiko dute denboraldi berria. Hala, Mugarri Alkesak Bilboko Urdaneta taldearen aurkako norgehiagokarekin emango dio ligari hasiera. Gorka Zurututzaren taldeak aurre-denboraldi ona egin du.

**URRETXUN LAGUN ARTEKOA**

Egubakoitzean jokatu zuen Arrasateko taldeak aurre-denboraldiko azken partidua, Urretxun. Zurututzaren mutilak ondo aritu ziren, eta 20 puntuko aldearekin irabazi zuten. Entrenatzaile oñatiarra harro dago taldeak egin duen lanarekin: "Lasai hasi ginen, baina partiduak aurrera joan ahala hobetu egin dugu".

Denboraldi berrirako hainbat berritasun izango ditu taldeak: Lizarrako Anderrek, Mikel Biainek, Iban Herzogek eta Jagoba Domingok taldea utziko dute. Jokalari berriak, berriz, Iker Liza zarauztarra eta Gorka Eraña bergararra izango dira. Horiekin batera, gazte mailako taldetik Beñat Barberena, Antxon Hernandez, Imanol Zeziaga eta Aitor Zeziaga igo dituzte.

**PRESIO BARIK ARITZEA**

Iazko denboraldi ona hainbat zalek izango du gogoan. Hori dela eta, baliteke taldeak joan den urteko lan ona errepikatzeko presioa izatea. Zurututzak, baina, argi dauka joan den urtean egindakoari begira ezin direla egon, hutsetik hasi behar dutela.

Ibarreko beste talde nagusiak, Eskoriatzak, urriaren 8an hasiko du liga. Oraindik erabaki barik dago egutegia. Gaur egingo den bileran jakingo dute noren aurka hasiko duten liga.



ARTXIBOA

Bigarren jardunaldian ere etxetik kanpo jokatuko dute, urriaren 4an.

# Iruditan



JULIAN GIL

**Kirol argazkien lehiaketa.** Bergarako Kirol Zerbitzuak urtero antolatzen du lehiaketa Pol-Pol argazki taldearekin batera. Aurtengo edizioa XVI.a izan da eta hauek dira saridunak: 1. saria koloretan, *100 m braza* Julian Gil legazpiarrarena (argazkian) eta zuri-beltzean, *Aupa neska* Josu Altzelairena. Hura ere Legazpikoa. Herriko saria koloretan Benito Canteroren *Behobia-Donostia* izan da eta zuri-beltzean Joseba Leturiaren *Gamueta* argazkia. Argazki guztiak Aroztegi aretoan egongo dira ikusgai urriaren 1era arte.



JOSETXO ARANTZABAL

**Boloak Oñatiko San Martin zelaian.** Atzo, Kurtze-Baltz elkarteak antolatuta, bolo txapelketa jokatu zen. Guztira 69 jokalari aritu ziren eta irabazlea Ondarroako Xabat Mendibe izan zen, sei bolorekin.



JOSETXO ARANTZABAL

**Nesken derbia Ipintza futbol zelaian.** Ligako bigarren jardunaldian, Bergarako BTLS KEk eta Mondrak derbia jokatu zuten. Partidua parekatua izan zen eta joko aldetik nahiko txarra. Azkenean puntu banaketa izan zen (1-1). Bergararen gola Leire Urgoitiak sartu zuen eta Mondrarena Leire Sanchezek.



JOSETXO ARANTZABAL

**Arrasateko xake txapelketa.** Asteburuan Arrasateko txapelketako hirugarren jardunaldia jokatu da. Ibarreko bi derbi jokatu ziren: arrasatearren derbian, Josu Tornai Txema Hernandori nagusitu zitzaion eta Aretxabaletako xake jokalarien artean, Fran Miguelek Aitor Alkaideri irabazi zion.

**TXIRRINDULARITZA** | OÑATI SARIAREN 19. EDIZIOA JOKATU ZEN ZAPATUAN

# Caja Ruraleko hiru txirrindulari batera iritsi ziren helmugara

*Torres, Aramendia eta Fernandez elkarrekin iritsi ziren Oñatira; bestalde, Ruben Palaciosek irabazi zuen Lehendakari Txapelketa*

Mireia Bikuña

Amaiera polita izan zuen Oñati sariaren 19. edizioak. Caja Rural taldeko hiru txirrindulariek batera jaso zituzten besoak. Baina epaileek irabazle bakarra izendatu zuten: Pablo Torres.

**TROPELA ZATIKATUA**

Olara auzotik goizeko 10etan hartu zuten irteera txirrindulariek. Udana igo eta Urretxuraino iritsi ziren. Handik, Deskargatik, Bergarara jaitsi eta berriro Oñatirako bidea hartu zuten. Ibilbide horri hiru buelta eman behar izan zizkioten txirrindulariek; guztira 120 kilometro inguru.

Udana igo eta Deskargatik jaitsi orduko tropela erabat zatikatu zen. Caja Rural taldea izan zen aurrean txirrindulari gehien izan zituen taldea.

Bigarren aldiz Oñatiko helmugatik pasatu zirenean, sei txirrindulari zeuden lasterketa buruan. Hirugarren itzulian, Deskarga jaisten Delio Fernandezek aurrera egin zuen. Bere taldeko Torresek eta Aramendiak harekin bat egin zuten. Hala, hirukotea elkarrekin iritsi zen Oñatiko helmugara. Haien atzetik gainontzeko txirrindulariak iritsi ziren. Tartean, Azpiru taldeko Joseba Itziar oñatiarra 35. tokian sailkatu zen.

Amateur mailako 19 eta 20 urteko 71 txirrindularik hasi zuten lasterketa. 120 kilometroak egin ondoren, helmugara 41 iritsi ziren.

**LEHENDAKARI TXAPELKETA**

Oñati sariaren 19. edizioa Lehendakari Txapelketarako azken proba puntuagarria zen. Hala, lehia bikoitza espero zen zapatuko proban: batetik, Seguros Bilbao taldeko Ruben Palacios eta Javier Iriarteren arteko lehia, Lehendakari Txapelketa nork irabazten zuen ikusteko; bestetik, taldekako Lehendakari Txapelketako irabazlea zehazteko lehia; Seguros Bilbao eta Caja Ruralen arteko lehia, hain zuzen.




JOSETXO ARANTZABAL

Caja Ruraleko Pablo Torres, Javier Aramendia eta Delio Fernandez helmugara iristen.

Bada, ziklistak helmugara iritsi zirenean argitu ziren gauzak: Seguros Bilbao taldeko Ruben Palaciosek irabazi zuen Lehendakari Txapelketa.

Ruben Palaciosen eta Javier Iriarteren arteko lehia bizia izan zen. Seguros Bilbao taldeak argi berdea eman zuen lasterketa nork bere modura egiteko. Eta Javier Iriarte ihes eginda ibili zen kilometro batzuetan. Baina Oñatira Palacios iritsi zen azkarrago, 8. tokian. Iriarte, berriz, 19.a izan zen.

Bestalde, taldekako Lehendakari Txapelketa Caja Rural taldeak eskuratu zuen.

**Seguros Bilbao taldeko Ruben Palaciosek irabazi zuen Lehendakari Txapelketa**

## Emaitzak

**LEHENENGOAK**

| | |
|---|---|
| 1. Pablo Torres | (2:58:52) |
| 2. Javier Aramendia | (2:58:52) |
| 3. Delio Fernandez | (2:58:52) |
| 4. Igor Romero | (2:59:21) |
| 5. Xabier Iriarte | (2:59:22) |
| 6. Javier Etxarri | (2:59:22) |
| 7. Jose Ignacio Blanco | (3:01:14) |
| 8. Ruben Palacios | (3:01:14) |
| 9. Unai Marin | (3:02:16) |
| 10. Eloy Tarifa | (3:02:16) |
| 11. Erlantz Etxeberria | (3:02:16) |
| 12. Julen Ramos | (3:02:22) |
| 13. Pedro Jose Calvo | (3:03:12) |
| 14. Jon Garate | (3:04:23) |
| 15. Mikel Filgueira | (3:05:14) |
| 16. Andoni Blazquez | (3:05:14) |
| 17. Mikel Olano | (3:05:14) |
| 18. Felipe Santamaria | (3:05:27) |
| 19. Javier Iriarte | (3:05:27) |
| 20. Ander Garmendia | (3:05:27) |
| 21. Vistor de la Parte | (3:05:27) |
| 22. Joseba Larralde | (3:05:27) |
| 23. David Sanchez | (3:05:36) |
| 24. Ivan Gonzalez | (3:05:46) |
| 25. Mikel Elbusto | (3:07:38) |
| 26. Imanol Mendikute | (3:07:38) |
| 27. Beñat Soto | (3:08:57) |
| 28. Pablo Cabayas | (3:09:03) |
| 29. Joseba Kortazar | (3:09:06) |
| 30. Gonzalo Vicente | (3:09:51) |

**TALDEKA**

| | |
|---|---|
| 1. Caja Rural | (8:56:36) |
| 2. Seguros Bilbao | (9:01:52) |
| 3. Suminan Uni2 | (9:10:05) |
| 4. Belca | (9:12:27) |
| 5. Azpiru Inmobiliaria | (9:18:17) |

**MENDIKO SARIA**

1. Jon Garate

**LEHENENGO OÑATIARRA**

1. Joseba Itziar

**LEHENENDAKARI TXAPELKETA**

1. Ruben Palacios
2. Javier Iriarte

## • HONELA IKUSI ZUTEN TXIRRINDULARIEK




**RUBEN PALACIOS** | LEHENDAKARI TXAPELKETAKO IRABAZLEA

"Lehendakari Txapelketa irabaztea oso pozgarria da niretzat. Lasterketa erdi inguruan Javier Iriartek ihes egin du. Bada, ahalegin berezia egin behar izan dut maillota ez galtzeko", azaldu zigun bukaeran Seguros Bilbao taldeko ziklistak.




**DELIO FERNANDEZ, PABLO TORRES ETA JAVIER ARAMENDIA** | SAILKAPENEKO LEHENENGO HIRU TXIRRINDULARIAK

Pozik zeuden Caja Rural taldeko hiru txirrindulariak. Pozik, eta nekatuta. "Hasieratik tropela zatikatu egin da. Ahalegindu gara aurreko postuetan gure taldeko txirrindulariak izaten. Horrek esfortzu berezia eskatu digu. Deskargatik jaitsi garen azkeneko aldian, aurrera egin dugu eta helmugara hirurok batera iritsi gara", adierazi zigun Caja Ruraleko hirukoteak. Talde bereko hiru txirrindulari helmugara batera iristea samurra ez dela ere esan ziguten Torresek, Aramendiak eta Fernandezek sariak jasotzera igo aurretik.



**JOSEBA ITZIAR** | LEHENENGO OÑATIARRA

"Denboraldia amaitu da. Dagoeneko oso nekatuta nago. Otsailetik hona 20.000 kilometro egin ditut eta oporrak hartzeko irrikaz nago. Oñatiko lasterketaren ondoren hilabete eta erdi inguruan oporrak hartuko ditut", esan zigun oñatiarrak.

**ARETO FUTBOLA** | MIKEL DEUNA XIV. SARIA, OÑATIN

# Nagusietan Zaldibia eta gazte mailan etxekoak izan ziren garaile

*Idiazabalek meritu osoz irabazi zuen txapelketa eta Aloñak ezustekoa eman zuen*

Arantzazu Ezkibel

Txapelketa polita jokatu zuten zapatuan Aloña Mendik, Zaldibiak eta Legazpiko La Bellota taldeak. Hala, Oñatiko Mikel Deuna jaien barruan antolatutako txapelketan, Zaldibiako taldea izan zen nagusi, inongo arazo barik gainditu zituen aipatutako beste bi taldeak.

**20 MINUTUKO ZATIAK**

Hiruko txapelketa izan zen; hala, 20 minutuko zatiak jokatu zituzten. Lehenengo partiduan, Zaldibiakoak 1-0 nagusitu zitzaizkien legazpiarrei. Partidua nahiko parekatua izan zen eta gol bakarrak Zaldibiari eman zion garaipena.

Bigarrenean, Aloñak galtzailearen aurka jokatu zuen. Eta Legazpikoak erraz nagusitu ziren etxekoen aurrean: 1-5. Partidu ona jokatu arren, sartutako bost golek ez zieten txapelketa irabazteko modurik eman legazpiarrei.

Azkeneko partiduan, etxekoak ondo aritu ziren, baina huts batzuk egin zituzten eta Zaldibiak horiek aprobetxatu zituen garaipena lortu eta txapelketa eskuratzeko.

"Partidua nahiko parekatua izan da. Hala ere, azken momentuan, atzealdean huts batzuk egin ditugu, eta partidua galdu", adierazi zigun Aloñako entrenatzaile Xantik partidu amaieran.

**GAZTE MAILAN EZUSTEKOA EMAN ZUEN ALOÑAK**

Goizean, gazte mailako txapelketa jokatu zen. Elgoibar, Eskoriatza eta Aloña izan ziren nor baino nor gehiago Zubikoa kiroldegian.

Lehenengo partiduan, Eskoriatzak 2-0eko abantaila izan zuen. Hala ere, epailearen erabakiek kalte egin zieten eskoriatzarrei, eta, azkenean, Elgoibarrek partidua berdintzea lortu zuen. Penaltietan Elgoibarkoak nagusitu ziren.

Bigarren partiduan, Eskoriatzak eta Aloñak jokatu zuten. Eskoriatza, berriro ere, 0-2 aurreratu zen. Eta aurreneko partiduan bezala, galdu egin zuen. Aloñak, jokalari gazteak kantxaratu arren, joko ona egiten dakiela erakutsi zuen. Hiru gol sartu zizkion Eskoriatzari, eta markagailua 3-2 geratu zen.

**14 GOL IKUSI ZIREN**

Elgoibarren eta Aloñaren arteko lehian erabaki zen txapelketako garailea.

Elgoibarkoak 0-3 aurreratu ziren markagailuan. Erraz nagusituko zirela ematen zuen; hala ere, etxekoek ez zuten amore eman eta 2-3 hurreratu ziren. Azkenean gol festa izan zen Zubikoan: 7-7 berdindu zuten. Bi partiduak kontuan hartuz, Aloña izan zen txapelketako garailea.



JOSETXO ARANTZABAL

Zaldibiako jokalariak garaikurra eskuetan dutela garaipena ospatzen.



ARANTZAZU EZKIBEL

Oñatiko jokalariek, gazteak izan arren, joko ona egiten dakitela erakutsi zuten etxekoen aurrean.

**23. Mikel Deuna pilota txapelketa**

## Debagoieneko lau pilotari arituko dira Mikel Deuna txapelketako finaletan

Arantzazu Ezkibel

Oñatiko pilota txapelketako finala Mendizabal (Antzuola) eta Olaldek (Mallabia) Idoate (Iruña) eta Agirianoren (Eskoriatza) aurka jokatuko dute.

Zapatuan jokatu ziren finalerdietako norgehiagokan nagusitu ziren aipatutako pilotariak.

**MAILA ONA**

Espero bezala, gazte mailako bi finalerdiak oso maila onekoak izan ziren. Mendizabal eta Olalde 22-18 nagusitu zitzaizkien Elezkano eta Jakari. Beste finalerdian, Idoiate eta Agiriano 22-19 gailendu ziren Narbarte eta Telletxearen aurka.

Aipatzekoa izan zen Mendizabal antzuolarrak eta Idoiate iruindarrak egindako lana; aurrelari biak oso fin aritu ziren, eta txapa gainean tanto asko egin zituzten.

Finala datorren zapatuan jokatuko dute, 10:30ean, Zubikoa kiroldegiko pilotalekuan.

**IKUSLE GUTXI OÑATIN**

Amateur mailako norgehiagoka bakarrean, Gonzalez eta Ajuria 22-11 nagusitu ziren. Datorren astean Bergarako Mugurutza eta Gutierrez bikotearen aurka jokatuko dute finala.

Aloña Mendi pilota sailekoek esan digutenez, oso ikusle gutxi bildu zen jaialdia ikustera.



JOSETXO ARANTZABAL

Partidu politak ikusi ziren.

• XABI ALONSO-LIVERPOOL TALDEAREN AURKEZPENA



JOSETXO ARANTZABAL

**31 TALDE ARITU ZIREN HIRUNAKO FUTBOLEAN**

Zapatuan Liverpool lagun taldea aurkeztu zuten, Xabi Alonso lagunarteak sortua. Jaialdia arrakastatsua izan zen. Goizerako hirunako futbol txapelketak antolatu zituzten. Gazte mailan 16 talde aurkeztu ziren eta irabazlea UDA izan zen. Nagusietan, berriz, 15 talde aritu ziren eta onenak Aretxabaletako areto futbol taldekoak izan ziren. Eguna amaitzeko, capoeira erakustaldia izan zuten Senzala taldearen eskutik.

Porfirio Fisac segoviarrak Gipuzkoako saskibaloia maila gorenera igotzea lortu du. Bruesa taldeak Espainiako ACB ligan jokatuko du aurten. Denboraldi-aurre ona egin dute donostiarrek eta ibarreko saskibaloi-zaleok horren lekuko izan gara. Atzo, Bergarako Labegaraieta kiroldegian nor baino nor gehiago aritu ziren Bruesa eta Ukrainako Kiev taldeak. Bruesa taldeko entrenatzailearekin izan gara, saskibaloiak Gipuzkoan duen indarraz hitz egiten. Datorren domekan hasiko dute liga, etxean.

**PORFIRIO FISAC** | BRUESA GBC TALDEKO ENTRENATZAILEA

# "Aldaketa handiena partiduaren inguruan sortzen den giroan dago"

Arantzazu Ezkibel

**Denboraldi-aurre ona egin duzue. Nola ikusten duzu taldea denboraldi berriari begira ?**

Gure helburua jokalariek minutuak jokatu eta sasoi fisikoa hartzea izan da. Horrez gain, jokalarien arteko harremana bultzatzea ere garrantzitsua da. Eta uste dut helburua lortu dugula.

Hala ere, denboraldi-aurreko lana neurtzeko modu egokiena lehiaketa izaten da. Orain arte jokatutako lagun artekoetan taldeak lan ona egin du, lantalde ona sortu da. Gainera, jokalariek ez dute eragozpen fisikorik izan, eta hori oso garrantzitsua da.

**Iazko talde bera mantentzen duzu. Garrantzitsua izango da taldekideek elkar ezagutzea.**

Denboraldi berrirako iazko jokalari erdiak mantendu ditugu eta beste erdiak berriak dira. Egia esan, ona da taldekideek elkar ezagutzea eta taldearen barne funtzionamendua ezagutzea. Nik zer nahi dudan eta nola lan egiten dudan jakitea ere komeni izaten da.

Jokalariak mantentzea ondo dago, baina kontuan hartu behar da helburuak ere bete egin behar direla; hau da, ACB ligan maila ona eman behar dugu.

**Lehenengo urtea izaten omen da zailena.**

Bai, hori esaten dute. Baina nik uste dut urte guztiek dutela bere zailtasuna. Hala ere, egia da guretzat jauzia handia izango dela. Aldaketa asko daude; jokaleku berria dugu eta bazkide kopurua ere handitu egin da, besteak beste. Gainera, aurkariak ere ez dira edonolakoak izango. Nik, baina, ACB mailan urte askoan mantentzea espero dut.

**Zein da LEB mailan edo ACB mailan jokatzearen arteko aldea?**

Aldea izugarria da, ezberdintasun asko daude-eta. Agian, jokalarien ezaugarrietan baino elkartearen antolamenduan dago aldaketa handiagoa. Hau da, taldeari eskatzen zaiona, jokalekua, zaleak eta hedabideak asko aldatzen dira. Uste dut hor dagoela alde handiena, partidu bakoitzaren inguruan sortzen den giroan.

> **"TAU ikustera joaten diren gipuzkoarrak harro sentiaraztea izango da Bruesaren helburua"**

**Errespetua emango du izarrez beteriko taldeen aurka aritzeak.**

Bai, nik uste dut errespetua dela hitza. Oinak lurrean izan behar ditugu eta talde guztiak errespetatu, bai Bartzelona, Madril, Unicaja eta TAU, eta baita Bilbao, Menorca eta halako taldeak ere.

**Azkenaldian saskibaloiak izan duen bultzada ikusirik, nola bizi du Gipuzkoak Bruesaren igoera?**

Zale kopurua asko igo da, eta azkar, gainera. Nik uste dut moda kontua ere izaten dela, eta orain, momentu egokian gaude. Gure helburua, hala ere, orain saskibaloia gustuko dutenek gero ere gustuko izatea izango da.

**Ibarreko zale asko Gasteizera joaten da TAU ikustera. Orain, puntako saskibaloia Donostian ikusteko aukera ere izango dute.**

Bai, gure helburua hori izango da: gipuzkoarrek Bruesa sustatu eta bultzatzea. Baina esan behar dut ondo iruditzen zaidala jendea TAU ikustera joatea, saskibaloia gustuko duten seinalea da. Guk gipuzkoarrak harro sentiarazi nahi ditugu.

**Aurten, hiru euskal talde izango zarete ACBn. Zaleek derbiez gozatzeko aukera ona izango dute.**

Bai, horrek guztiak saskibaloiaz gehiago hitz egitea ekarriko du. Derbiak bereziak izaten dira, eta zaleek bereziki bizi izaten dituzte partidu horiek.

**Illunbek izan duen birmoldaketa zer iruditzen zaizu?**

Egia esan, oraindik bukatzeko dago. Nik uste dut oso berandu ari garela, baina niri ez dagozkidan gauzak dira horiek.



ARANTZAZU EZKIBEL

Fisacek denboraldia hasteko gogoz dagoela esan zigun.

Saskibaloian aritzeko kantxa ona izango dela uste dut, hori ematen du. Liga hasteko astebete geratzen den arren, oraindik bukatu gabe dago. Beraz, ezin dut esan nola geratuko den, baina nik uste dut egokia izango dela.

**Datorren astean, etxean, Bilboko Lagun Aro taldearen aurka hasiko duzue liga. Nola ikusten duzu norgehiagoka?**

Nik uste dut bi taldeentzat dela partidu egokia liga hasteko. Bi taldeak maila berekoak garela esan daiteke; beraz, bai irabazteko eta bai galtzeko aukera berak izango ditugu.

Gainera, derbietan beti egoten da lehia berezia. Etxean jokatuko dugun lehenengo partidua izango da, eta horrek guztiak partidua berezia izatea egingo du.

Badakigu zaila izango dela, baina gure helburua oztopo guztiak gainditu eta ahalik eta norgehiagoka onena jokatzea izango da.

## Bruesa 78-59 nagusitu zitzaion Ukrainako Kiev taldeari Bergaran

**Bruesak jarraitzaile asko bildu zituen atzo Bergaran goi mailako saskibaloia ikusteko. Labegaraietako kiroldegian Donostiako taldeak eta Ukrainako Kievek neurtu zituzten indarrak. Hasieratik hartu zuen aurre markagailuan Bruesak eta ez zuen arazorik izan Kiev mendean hartzeko. Atsedenean 37-32 ziren aurretik donostiarrak. Eta aldagelatik bueltan, indarberrituta, aldea nabarmen handitu zuten. Azkenean, 78-59 nagusitu ziren. Esan behar da Ukrainako taldeak ere jarraitzaile taldetxoa izan zuela atzo Bergaran.**

**"Denboraldi-aurreko azken partidua ACB ligakoa ez zen talde baten aurka jokatu nahi genuen. Kievek izen handia du, eta azkeneko proba egiteko talde egokia iruditu zaigu", azaldu zigun Fisac entrenatzaileak.**



BASABE
jatetxea



Basabe bidea z/g
Tel: 943 79 91 84
Aretxabaleta

BERGARA
Simon Arrietan
ETXEBIZITZA
SALGAI
80 m².
Prezio
interesgarria.
Interesatuok deitu:
664 73 49 60

TOKI
ALAI
TABERNA
Karajiloetan
espezializatua
Tel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA

• Azpitarte anai-arrebendako izan zen Bergarako Moises Azpiazu txapelketako saria | 22
• Anari eta Sorkun bakarlariek kontzertua egingo dute Arrasaten egubakoitzean | 27

Jose Antonio Azpiazuk lihoaren gaineko liburua aurkeztuko du eguenean | 27

EMAKUMEZKO BERTSOLARIEN KABARETA



JOSETXO ARANTZABAL

Kabareta eta bertsolaritza uztartuta, emakumezkoen bizipenak ekarri zituzten bertsolariek egubakoitzean Arrasatera.

**BERTSOLARITZA** | KABARET ESTILOAN EMAKUMEZKOEN BIZIPENAK DAKARTZA 'EMETIK' BERTSO SAIOAK

# Emakumezkoen ahotsak gero eta indartsuago eta molde berezietan

*Antolatzaileek lekuarekin ez asmatu arren, planteamendua originala eta bertsolarien lana txukuna dela garbi geratu zen egubakoitzean Arrasateko Herriko Plazan egindako ikuskizunean*

Jon Berezibar

Iratxe Ibarra, Onintza Enbeita eta Oihane Perea bertsolariek osatzen dute emakumezko ahotsen kabaret bitxiko taldea. Lumazko bufanda koloretsuak lepoan, hainbat emakumeren azalean sartu eta bertso, poesia eta jokoekin osatzen dute *Emetik* ikuskizuna. Egubakoitzeko saiotik argi, behintzat, bi gauza atera zitezkeen: bertsolaritzan emakumeek zeresan gero eta handiagoa dutela eta bertsolaritza bera ere loraldi moduko bat bizi izaten dabilela. Eta ez bakarrik bertsolarien mailagatik, bere baitan formatu eta estilo aldetik eboluzionatzen dabilelako bertsolaritza, herri adierazpen izatetik, edozein girotara moldatzera. Baita kabaretaren girora ere, egubakoitzekoan ikusitakoak ikusita, ezin hobeto ulertzen dute elkar kabaretak eta bertsolaritzak elkarren ondoan.

Zirikatzaile eta entretenitzeko gogoekin irten ziren egubakoitzean hiru neskak Arrasateko Herriko Plazara eta ez zen lan erraza izan haiei egokitutakoa. Izan ere, antolatzaileek ezin zuten saioak daukan planteamendurako kokapen desegokiagorik aukeratu. Umez josia, zarata mordo batekin eta handiegi eta urrun geratzen zen eszenatoki baten, hiru bertsolariek ahal zuten guztia egin zuten ikusleen arreta bereganatzeko. Saioa taberna edo gaztetxeen moduko giroetarako prestatuta dago eta Arrasateko Herriko Plazan lekuz kanpo moduan geratzen zen ikuskizuna. Hala ere, hiru neskek ez zuten adorerik galdu, eta, bertsoz bertso, saio polita harilkatzea lortu zuten. Ikuskizuna hasteko eta hainbeste ume ikusita, gurasoei bertsoka hasi ziren. Handik bertsolariaren emaztearen azalean jarri eta hiru neskek esperientzia elkartrukea egin zuten. Amodio kontuak ere ekarri zituzten eta gogoan izan zituzten De Juana eta Agirre presoak, bertso bat baino gehiago haiei dedikatuta. Ikuskizunaren bigarren zatian, oholtza utzi eta plazara jaitsi ziren bertsolariak, baina, esan bezala, ez zen giro Herriko Plazan. Hala ere, Ibarra, Enbeita eta Pereak txukun eutsi zioten ikuskizunari eta saioak aurrera egin zuen. Ikusleek, behintzat, txalo beroekin eskertu zieten egindako ahalegina.

> Adorerik galdu gabe saio polita egin zuten neskek, eragozpenen gaindi
>
> Bertsolaritza malgua dela frogatu zuten, baita kabaretarekin ere

**IRATXE IBARRA** | BERTSOLARIA

# “Saioetan irten ohi ez diren gaiak atera nahi ditugu”

J. B.

**Apirilean debuta egin eta geratu barik ibili dira kabareteko hiru bertsolariak taberna, gaztetxe eta antzokietan emakumezkoen ahotsa bertsotan entzunarazten.**

**Ideia bitxia da bertso kabareta egitea. Nola otu zitzaizuen?**

Emakume bertsolariek urtean behin edo birritan egiten ditugun topaketetan izan zen. Hurrengo eguneko biharamunarekin, Xabi Paia gu hirurokin zegoen eta zerbait egin behar genuela pentsatu genuen; zer ez genekien, baina hirurek zerbait egin behar genuela iruditu zitzaigun eta Xabik esan zigun orain egiteko, sasoia zela. Lehenengo, izena asmatu genuen, Emetik, eta hortik etorri zen kabaretaren kontua. Horrek, bertsoez gain, musika, antzerkia eta barietatea behar du. Antzerki askorik ez dugu sartzen, kabaret itxura eman besterik ez, eta gero paperaren arabera janzten gara, ikusleek errazago identifikatzeko.

**Sasoia zela aipatu duzu. Zertarako baina?**

Sasoia ez bakarrik emakumeen zerbait egiteko, baizik eta ikuskizun mota hauei ekiteko. Aurretik egon dira formatu ezberdinetako bertso saioak, baina guk pentsatutako une hartan ez zegoen ezer berririk. Neskenak lehenengo joan behar zuela iruditu zitzaigun eta ideia garatzen joan ginen guk jorratu nahi genituen gaien inguruan jarduteko. Emakume ahotsetik saio normaletan irteten ez diren gaiak atera nahi ditugu: andrezkoen ezkon-aurreko afari bat, prostituzioa, etxekoandreak, sorginak...

**Gai jartzaileek gutxitan erabiltzen dituzte gaiok?**

Gai-jartzaileen artean emakume asko dago eta nabari da gai ezberdinak ateratzen direla, baina oraindik, gizonezkoen edozein gai erabat normala den moduan, emakumezkoenak ez horrenbesteraino. Depilazioari buruz, adibidez, zenbat bertso entzun dira, edota hilerokori buruz? Gehiago hartzen da gizonaren ikuspuntua. Jende gaztearekin badabiltza sartzen gai horiek, baina oraindik bidea dago egiteko.

**Hala ere, ematen du bertsolaritzak oso modu naturalean hartu dituela emakumezkoen belaunaldi berriak.**

Gaur egun ikusleen artean ez dira harridura aurpegiak ikusten neskaren batek irtetean. Parekatzen doa apurka, baina nik uste dut lehen baietz; behintzat, gu hasi ginenean. Ez, agian, bertsolarien aldetik, baina bai entzuleen aldetik, batzuei arraroa egiten zitzaien. Ahotsa oso desberdina da, kantaera ere. Orain jada ez, neska asko ikusten da-eta. Probintzia bakoitzean neska berri asko dago eta eskola artekoan beti ibili izan dira neskak mutilak beste edo gehiago. Mundu horretan sartuta dagoenarendako ez da sekula arraroa izan, baina kanpokoentzat eta edadeko jendearentzat ez da hala izan. Askotan, gainera, gizonak edozer esan eta barre egiten du jendeak, baina gauza bera neska batek esanda, erreakzioa ez da berdina beti. Baina dagoeneko oso natural hartzen da dena.

**Neska belaunaldi indartsua datorrela ematen du.**

Bat baino gehiago, ze gu lehenengotarikoak baikara eta 16-18 urte inguruan dabiltzanak kopuruz eta kalitatez oso onak dira. Nik Bizkaian hori ikusten dut eta Iparraldean eta Gipuzkoan ere berdin gertatzen dela uste dut.

**Bertsolaritzan beste iraultza bat formatuen arteko nahasketa izan da, zuen ikuskizuna adibide dela.**

Formatu txikiko saio asko egiten dira. Lehen, bertso-afariak edo bazkariak eta jaialdiak besterik ez zegoen. Orain, bertso-tramak, bertso-antzerkiak, kabareta, bertsotranpak, Egañarekin eta Paiatarrekin, asko dago. Afarietan ere ikusten dira batzuk tematikoak; adibidez, aurreranzko eboluzioa erakusten du horrek. Elitetik kanpo dabiltzan bertsolarientzat ere hau ona da, ze jaialdi erraldoietan beti baitabiltza zortzi-hamar berdinak eta besteentzako aukera dira formatu berriak.

**Horrek bertsolariei bertsoak egiten jakiteaz gain beste makina bat abildade eskatzen dizue?**

Ez dakit ikusleek hainbeste exijituko dutenik, baina gure kabaretean ere antzerkia sartzen da, adibidez. Egon ginen Ander Lipusekin ikasten oholtzan zelan mugitu behar den, tabureteekin zelan ibili... Gero, han, berotan, ez dakit gauzak behar bezala egiten ditugun, ze oso gaitza baita bertsotara eta antzerkira, aldi berean, egotea. Ahalegina egiten dugu eta uste dut hasieran baino hobeto gabiltzala kontu horrekin. Orain, gainera, musikari bat ere badaukagu eta garatzen doa ikuskizuna.

**Zer komentatzen dizue jendeak?**

Orain arte oso ondo. Larrabetzun hasi ginen eta hori oso ondo atera zitzaigun. Hangoak izan ziren, gainera, entzule kritikoenak, bertsolariak ziren-eta. Andrezko batzuk ere bazebiltzan han eta esan ziguten orduan zela neska batzuk halako zer edo zer egiteko. Leku askotan egon gara ikuskizunarekin eta azkenean, abuztuan atseden hartzea erabaki genuen.



JOSETXO ARANTZABAL

Markinarra da Iratxe Ibarra bertsolaria.

“Neska belaunaldi oso indartsua datorrela ikusten da Bizkaian, Gipuzkoan eta Iparraldean”

“Elitean ez dabiltzan bertsolarientzat aukera polita dira formatu berriok”

“Bertsolaritzak aurreranzko eboluzioa bizi duela ikusten dabil azkenaldian”



Erosten jakin:
ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU

EROSKI
Erosten jakin



DANTZA | **MOISES AZPIAZUREN OMENEZKO 22. TXAPELKETA**

# Azpitarte anai-arrebek eroan zituzten txapelketako txapela eta zapia

*Xabier Azurmendi eta Janire Urbieta bergararrek bigarren saria eskuratu zuten barikuan Bergaran jokatutako txapelketan*

Monika Belastegi

Mailarik oneneko dantza solteko bikoteak ikusteko aukera izan zuten bariku iluntzean Bergarako Udal Pilotalekura hurbildu zirenek. Moises Azpiazu zenaren oroimenezko 22. txapelketa jokatu zen eta hamar bikote aritu ziren buruz buru.

Arin-arin eta fandango bana egin behar izan zuten bikoteek eta lehenengo sariak Azkoitiko Azpitarte anai-arrebendako –aurten, Seguran, Euskal Herriko txapeldun izan dira– izan behar zuela erabaki zuten Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarretik etorritako epaimahaiko hiru kideek. Bestalde, lehenengo saria eroan ez zuten arren, Bergarako ordezkariak oso ondo ibili ziren txapelketan. Hain justu, Xabier Azurmendi eta Janire Urbieta izan ziren bigarren eta Mikel Igartua eta Ibane Baseta hirugarren.

Txapelketaren barruan dantza solteko koreografia ikusteko aukera ere egon zen. Abarka dantza taldeko dantzariek txapelketako pausoak eta Arratiako dantza solteko pausoak nahastuz egin zuten koreografia.

**TALDEA OSATZEKO DEIA**

Moises Azpiazu eta Abarka dantza taldeek eta Jardun elkarteak haurren dantza taldea osatzeko dei egin dute. Izena emateko epea zabalik dago eta aurtengo ikasturtean dantzan aritu nahi duten guztiek Jardunera jo besterik ez dute izena emateko. 943 76 08 19 zenbakira ere dei dezakete.

## Emaitzak

**IZEN DEITURAK**

1. Jon Ander Azpitarte (Azkoitia)
   Edurne Azpitarte (Azkoitia)
2. Xabier Azurmendi (Bergara)
   Janire Urbieta (Bergara)
3. Xabier Segura (Hernani)
   Lierni Martiarena (Hernani)
4. Mikel Igartua (Bergara) *
   Ibane Baseta (Bergara)
5. Joseba Apaolaza (Arama)
   Irati Imaz (Lazkao)

* Herriko bikote onenaren saria ere jaso zuten.



YLLANA TALDEA | **ESPALOIA BETE ZUTEN, OHI BEZALA**

Denbora laburrean hirugarrenez izan dira Yllana antzerki taldekoak Elgetako Espaloia antzokian. Azkena, egubakoitzean. *Star Trip* antzezlana egitera joan ziren, eta aurreko beste bi emanaldietan bezala –*666* eta *GlubGlub*–, bete egin zuten aretoa. Horren arrakastatsu egin dituen umoreari eutsiz, lau astronautaren istorioa kontatu zieten Yllanakoek bertaratutako ikusleei. Lau astronautok kontatu zuten 50 urte daramatzatela espaziuntzian hibernatzen. 50 urte igaro diren arren, espaziuntzia gidatzeak sekulako burukomina ematen zien barikuan, oraindik ere. | A.G.

# Taldeko hasierako kideekin batera esan zuen agur Arkada Socialek barikuan

*Lepo bete zen aretoa eta hainbat jarraitzaile ezin sartu geratu ziren, sarrera guztiak agortu zirelako*

M.B.

18:00etan zabaldu zuten Arrasateko 3.60 aretoko txarteldegia egubakoitzean, eta ordurako jende ugari zegoen sarrera erosteko zain. Arrasateko Arkada Social punk-oi! taldearen agur kontzertua zen, eta horrek jende ugari erakarri zuen: taldeari agur esateko gogoa omen zuten arrasatear zein inguruko herrietako lagun ugarik, eta horrek nahaspila ekarri zuen sarrera erosteko orduan. Izan ere, inork ez zuen taldearen azken emanaldirako sarrerarik gabe geratu nahi. Hala eta guztiz ere, baliteke Arkada Social taldeak beste emanaldi bat egitea. Halaxe adierazi zuten, behintzat, barikuko emanaldian. Hortaz, sarrerarik gabe geratu zirenek taldea azkenekoz ikusteko beste aukera bat izan lezakete. Bestelako detailerik ere izana zuten jarraitzaileekin: sarrerarekin batera, taldearen bost kantuz eta RIPen *No hay futuro* mitikoarekin osatutako CDa oparitu zuten.

**LAGUNEZ INGURATUTA**

Herriko beste bi taldez lagunduta egon ziren Arkadakoak. Aggresive Combatek zabaldu zuen emanaldia. *Etorkizun iluna* diskoko abestiak egin zituen, eta baita hainbat talderen bertsioak ere.

Enboskadakoak igo ziren taulara gero. Aretoa jendez lepo eta ordurako bero-bero eginda. Hamabost abesti egin zituzten: kantu berriak eta jarraitzaileek oso ezagun dituztenak tartekatu zituzten.

Arkadakoak izan ziren azkenak eszenatokira igotzen eta entzuleak zain zeuden azkeneko emanaldiaz gozatzeko. Hodei –baxua eta ahotsa–, Brian –gitarra– eta Julio –bateria– ez ziren bakarrik aritu: entzuleek eurekin batera kantatu zituzten abesti guztiak. Ordubeteko kontzertua egin eta gero geldialdia egin zuten; 3.60 aretoko pantaila jaitsi egin zen eta taldearen bizitza –1997-2006– batzen zuen bideoa ikusi ahal izan zuten bertaratutako guztiek.

Bideo emanaldiaren ondoren jarraitu egin zuen kontzertuak, eta, agian, horixe izan zen gauaren une hunkigarrietako bat. Izan ere, Arkada Social hastapenetako formaziora itzuli zen: taldeko lehenengo ahotsa –*Ziri*– eta *Estelea* gitarra jotzailea igo ziren eszenatokira. Hala, hirukotea boskote bihurtuta, hasierako doinuak eskaini zizkieten jarraitzaileei. Azkena, *Esos del barrio*.





JOSETXO ARANTZABAL

Arkada Social taldekoak emanaldiaren une batean.



# UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA II. LEHIAKETA



**Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/argazkiak**



**ILUNABAR LASAIA.** Abuztuan Kroaziako kostaldean egindako argazkia da goikoa. Ilunabar lasaia ageri da, eta eguzkia olibondoen artetik. /Argazkia: Ander Ugalde /Arrasate



**ILE APAINDEGIA KALEAN.** Varanasi (India). Ile apaindegiaren atzean behi bat ikusten da. Bertan masajeak ere ematen zituzten. /Argazkia: Corrado Campagnoli /Oñati



**LASAITASUNA.** New Yorken egin zuen argazkia Alaiak. Haren esanetan, halako hirietan pertsona asko estresatuta bizi diren arren, badira lasai bizi direnak ere. /Argazkia: Alaia Perez /Oñati



**DOMINIKAR ERREPUBLIKA.** Hondartzan ateratako argazkia da. Eguzkia palmondo hostoen artean ikusten da. Itzala bai, baina ez beroa kentzeko modukoa. /Argazkia: Amaia Arroyo /Arrasate



**ESKOLAN ASPERTUTA?** Laosen egin zuten goiko argazkia. Neska-mutiko bikotea eskolako atean ageri da. Aspertuta ote daude, bada? /Argazkia: Amaia Murgiondo /Aretxabaleta



**ALPEETAN.** Sasoi honetan halako asko ikusten da. Elurrarengatik, loreek bizi iraupen laburra dute. Hala, kolore bizia izaten dute, polinizazioa bizkorrago egiteko. /Argazkia: Amaia Otxoa /Aretxabaleta



**ERRUMANIA.** Carol erregeak izugarrizko gaztelua egin zuen XIX. mende bukaeran. Bien bitartean, errumaniarrak gosez hiltzen zeuden. Eskerrak nekazaritza oso garatuta duten. /Argazkia: Eider Otxoa /Aretxabaleta



**HORIXE ABILDADEA.** Abuztuan atera zuten, Indian. Jaisalmer herrian, hain justu, aita eta haren alabak motorrean doaz pozik erortzeko arriskurik gabe. /Argazkia: Ainhoa Zabaleta /Oñati



**GURE ITXURARI BARRE.** Senegalgo irlatxo bateko neskato horri grazia egin zion argazkilariaren eta haren lagunaren itxurak. /Argazkia: Gorka Morras /Arrasate



**BOLO JOKOAN.** Uciedako (Kantabria) bolatokian Jose Luisek irabazi zuen txapelketa. Haren atzean dagoena, Jose Mari, bigarren postuan geldítu zen. /Argazkia: Andoni Iñarra /Arrasate



**'TXIPI' KATUA.** Eurekin eroan zuten Anek eta haren gurasoek *Txipi* katua oporretan. Donibane Lohitzunen izan ziren egun batzuk igarotzen *Txipi*-rekin batera. /Argazkia: Ane Jauregi /Bergara



**MIDI MENDIA.** Argazkia aurtengo abuztukoa da eta bertan agertzen den mendia Midi da. Lagos de Anayet-etik egin zuten irudia. /Argazkia: Angel Moraleja /Arrasate



**LUZEAGORIK EZ OTE ZUEN?** Kanadan izan dira uda honetan egun batzuk igarotzen. Goiko argazkia Louise lakuan egin zuten. /Argazkia: Aritz Auzmendi /Arrasate



**NIKARAGUA.** Aurtengo udan Nikaraguan izan da antzuolarra. Askotarikoak ikusi ditu, baina hainbat herritar nola bizi diren ikusteak eman dio atentzioa bereziki. /Argazkia: Dabid Deogracias /Antzuola



**PORTU HANDIETATIK URRUTI.** Alacanteko Tabarka irlan patera baten sartu (irudian) eta inguruko turistak barrez jarri zituen Bixenek. /Argazkia: Eneritz Urbieta /Bergara



**AUTORIK GABE IA-IA.** Uztailean Oihaneren urtebetetzea ospatu eta gero begira zer aurkitu zuten. Zuhaitzak ia-ia autorik gabe laga zituen. /Argazkia: Goiatz Burgi /Aramaio



**IMAJINAZIORIK EZ ZAIE FALTA.** Dominikar Errepublikan izan ziren oporretan. Besteak beste, halako postu xelebreak aurkitu zituzten. /Argazkia: Iker Ugarte /Aretxabaleta



**GUSTURA E?** Senegalgo Laku Arrosan egin zuten argazkia. Gustura asko ageri da arrasatearra atseden hartzen. Egunkaria baino ez zaio falta. /Argazkia: Mikel Arkauz /Arrasate



**KARAKOLAK HONFLEUR-EN (NORMANDIA).** Benetan deigarria egin zitzaion argazkilariari puntu jakin horrek barraskiloengan sortzen zuen erakarpena. /Argazkia: Iñigo Biain /Oñati



**DONOSTIAREN EDERTASUNA.** Argazkilariak abuztuan egin zuen goiko irudia: "Eguzkia sartzen denean, itsasoan eguna bukatzen denean". /Argazkia: Iñigo Trueba /Aretxabaleta



**GULPIYURIKO HONDARTZA (ASTURIAS).** Hondartza da, baina bertatik ezin da itsasoa ikusi. Ura mendian dagoen zulo batetik sartzen da. /Argazkia: Itziar Ezkurra /Arrasate



**INTXAUR OSKOLA.** Horixe dirudi Vietnamgo Hon Tre-ko haurraren ontziak. Baina ez; zurezko txalupa dela azaldu digu argazkilariak. /Argazkia: Izaskun Arroyo /Bergara



**KOLOREZKO ERRUBERA.** Derviche dantzariaren abildadeak txundituta laga zuen argazkilaria. Dantzaria biraka hasi eta ikusleak hipnotizatuta bezala lagatzen ei ditu. /Argazkia: Josu Leturia /Bergara



**HOLMENKOLLEN (OSLO).** Han egin ziren jauzien neguko joko olinpiarrak. Honako bista edukiko zuten atletek, elurrarekin, jakina. /Argazkia: Jabier Gonzalez /Bergara



**MAZUNTE (MEXIKO).** Argazkian ikusten da Igorri olatu handi eta indartsua muturretan nola lehertzen zaion. Eskerrak Ozeano Barea deitzen dioten, bestela... /Argazkia: Josu Lete /Bergara



**PUNO HERRIA (PERU).** Herri guztiarendako ogia egiten du irudiko emakumeak. Artoa harriarekin birrindu eta halaxe lortzen du irina. /Argazkia: Joxemi Elizburu /Aretxabaleta



**ASPERTUTA.** Irudiko tximua aspertuta dagoela iruditu zaio argazkilariari. *Mono-tonia* izenburua jarri dio, behintzat, argazkiari. /Argazkia: Jurgi Iraola /Arrasate



**KAMERA GUSTUKO.** Jirafa horrek argazki kamerak gustuko dituela ematen du; baina ez argazkian irteteagatik, kamera berarendako hartu nahi zuelako baizik. /Argazkia: Leire Larrea /Antzuola



**CADAQUES (GIRONA).** Aurtengo udan izan dira Cadaquesen eta izugarri gustatu zaie. Paisaia izugarriak dituela esan digute; argazkikoa, esaterako. /Argazkia: Julian Zangitu /Bergara



**ZER EGONGO DA BUKAERAN?** Aurtengo udan Frantzia, Suitza eta Alemania aldean ibili dira. Irudian agertzen dena Markel da; baina zertan ote dabil? /Argazkia: Markel Mendieta /Arrasate



**ARROZ LANDAKETAK.** Aurtengo udan, abuztuan, ateratako argazkia da. Txinan egin zuten, Ping'an herrian, arroz-soroetan lanean ari den emakume bati. /Argazkia: Mikel Sologaiztoa /Oñati



**AMETSETAKO OPORRAK.** Halaxe definitu ditu Uribarren arrasatearrak Lanzaroten egindako oporrak. Egia esan, ez zaio batere itxura txarrik ikusten argazkian. /Argazkia: Mikel Uribarren /Arrasate



**ZELAKO PAISAIAK.** Ayuseko lakuetako bat erakusten digu Maialenek argazki honetan. Atzeko aldean dagoen mendia Midi dela ere azaltzen du. /Argazkia: Maialen Zangitu /Bergara



**ESKATUTAKO ARGAZKIA.** Indiako Ranakpur hiriko tenplu baten, hango herritarrek hala eskatuta egin zuen Zabaletak goiko irudia, aurtengo abuztuan. /Argazkia: Nagore Zabaleta /Oñati



**SINGAPORE.** Thaipusam prozesioa Singaporeko kaleetan. Gizonek gorputzari lotuta dute karru bat eta hori tiraka eraman behar dute. /Argazkia: Maite Arkauz /Oñati



**AL HUDADYDAH.** Yemeneko portu garrantzitsuena han dago. Arrantza diru sarrera garrantzitsua da eta marrazoa arrainik preziatuena. /Argazkia: Raquel Dávila /Arrasate



**SOPELAKO HONDARTZA.** Klaseko lagun batzuekin joan zen Yera hondartzara. Sekulako eskultura egiteko asmoa zuten, baina... /Argazkia: Yera Sanchez /Aretxabaleta



**KAFKAREN ONDOAN.** Irantzu bera ageri da argazkian. Pragan egindakoa da. Etxeak txikiak eta kolore bizikoak direla diosku eta Kafka halako baten bizi zela /Argazkia: Irantzu Elortza /Oñati



**EDINBURGO.** Udan ospatzen den Military Tattoo-ra joateko sarrerarik lortu ez, eta kaleetan aurkitutako gaita-jolekin konformatu behar izan zenuen. /Argazkia: Liher Gracia /Eskoriatza



**TERE ETA JERARDO.** Pragan izan dira aurtengo udan. Inguruko etxeetako baten Kafka urtebetez bizi izan zela esan digute; liburuak idazten. /Argazkia: Tere Letamendi /Oñati



**GREZIA?** Hala dirudien arren, Edinburgon (Eskozia) ateratako argazkia da. Gida-liburuek diote Edinburgori batzuek iparraldeko Atenas esaten diotela. Orain badakite zergatik. /Argazkia: Oihana Ezkurra /Arrasate



**ERROTAK.** Rotterdametik gertu dagoen herritxo batean egin zuten argazkia. 10-12 errota zeuden; Holandan ikusi zituzten bakarrak. Ez ei dira hain erraz ikusten. /Argazkia: Oihane Ezkibel /Aretxabaleta



**INDIA.** Jatekoa erosteko dirua behar. Hala, umeak ere askotarikoak egiten ikus daitezke batzuetan. /Argazkia: Ramon Balerdi /Arrasate



**BADATOZELA BURUHANDIAK.** Aurtengo abuztuan Viano do Castelon (Portugal) ateratako argazkia. Jaiak harrapatu ei dituzten. /Argazkia: Iñigo Ezkibel /Oñati

## Baldintzak:

- Udako argazkiak izan behar dira: aurtengoak edo beste uda batekoak. (Argitaratu gabeak)
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta.
- Bidali ahal izango dira e postaz *argazkiak@goiena.com* helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
- Argazkiak jasotzeko azken eguna, 2006ko irailaren 18a.
- Parte-hartzaile bakoitzak bidali ahal izango ditu, gehienez ere, 5 argazki.
- Adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak eta nondarra den, adina eta telefonoa, eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, etab.).
- Astero argitaratuko dira *Asteleheneko Goienkaria*-n.
- Urriaren 2ko *Asteleheneko Goienkaria*-n aditzera emango dira irabazleen izenak.

## Sariak:




- **1. saria: Olympus E-300 reflex** argazki kamera digitala, bi objektibo aldagarriekin Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
- **2. saria:** Hoteletan gaua pasatzeko Talon Plan Card txartela. Barcelo Bidaiak agentziaren eskutik.
- **3. saria:** bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

## Babeslea:

kutxa

## Laguntzaileak:

kiñu argazkilariak

Barceló Bidaiak

GURE AMETSA JATETXEA

# Bergarako film laburren lehiaketako sariak banatu aurretik, hainbat emanaldi

*Lehiaketako sariak hilaren 29an banatuko dira, eta martitzenean hasi eta eguenera arte, laburrak emango dituzte egunero*

Leire Kortabarria

Euskal film laburren emanaldi sorta antolatu du Bergarako Udalak bihar, martitzena, hasi eta hilaren 28ra arte, eguena. Izan ere, Udalak antolatutako I. film labur lehiaketako sari banaketa ekitaldia datorren egubakoitzean, hilaren 29an, egingo dute, eta aste osoan horretarako giroa sortuko dute emanaldiok. Egubakoitzean bertan, Bergarako gazteen film laburrak emango dituzte; kontuan hartu behar da lehiaketan Bergarako film labur onenari dagokion saria ere banatuko dutela.

Emanaldi guztiak Agorrosinen izango dira, 19:00etan.

**HAMAZAZPI LABUR**

Honako egitaraua prestatu dute: bihar, martitzena, *Hauspo soinua* (Inaz Fernandez), *Kaiolaren arima* (Jon Garaño), *Usoa* (Maria Zamakola), *Ecosistema* (Tinieblas Gonzalez) eta *Lepokoa* (Safy Nebbou); etzi, eguaztena, *Basurdea* (Ane Muñoz), *Belarra* (Koldo Almandoz), *Dortoka uhartea* (Maru Solores), *Terminal* (Aitzol Aramaio), *Topeka* (Asier Altuna) eta *Ilbera* (Santi Urrutia); eta eguenean, hilak 28, *Amnesiak* (Angel B. Aldarondo), *Amuak* (Koldo Almandoz), *El salto de Beamon* (Ane Muñoz), *Hara!* (Emilio de la Rosa), *Ostertz* (Iñigo Kintana eta Iñaki Bergaretxe) eta *Ze krixto!* (Iñigo Kintana).

**ZINEMALDITIK GURERA**

Debagoieneko beste zinegile gazte baten lana ikusteko modua ere izango da. Hain zuzen, Jose Maria Gonzalez *Gonza* oñatiarraren *Txorixak galduta egozenian* dokumentala, Zinemaldian emango dutena, Arrasateko Amaia antzokian emango dute hilaren 28an 20:30ean.

## Labur

### Jose Antonio Azpiazuk lihoaren gaineko liburua aurkeztuko du

Jose Antonio Azpiazu Oñatin bizi den historialari legazpiarrak eguenean, hilak 28, aurkeztuko du bere liburu berria: *La historia desconocida del lino vasco* (Ttarttalo argitaletxea). Oñatiko udaletxeko areto nagusian aurkeztuko du, 19:00etan; aurrerago, Donostian izango da beste aurkezpen bat.

XVI. eta XVII. mendeetako historia da, batik bat. Azpiazuren esanetan, "erreferentzia historiko oso gutxi" dago jarduera horren gainean, baina oso garrantzitsua izan zen Euskal Herrirako.

### Zeramika ikastaroetan parte har daiteke Arrasaten eta Bergaran

Zeramika ikastaro bana antolatu dute Arrasaten eta Bergaran, eta izenemate epea zabalik dago.

Arrasateko ikastaroa Loixe zeramika elkarteak antolatu du, urtero bezala. Urriaren 2an hasiko dira, eta izena emateko Gazte Informazio Zerbitzura jo beharra dago, edo 943 77 00 65 telefonora deitu. Bergarakoa oinarrizko mailakoa da, eta Zabalotegiko dorrean emango dute. Izena emateko, deitu 626 92 04 13 edo 943 20 65 01 telefono zenbakietara.

### Aramaioren inguruko argazki lehiaketa antolatu du Udalak

Aramaioren gaineko argazkien lehiaketa deitu du Udalak, eta aurkezten diren argazkiak Udalak aterako ditu bere egutegi, eskuorri eta beste argitalpen batzuetan. Horrez gain, 200, 150 eta 100 euroko sari bana emango du.

Norberak gura bezain beste argazki aurkez ditzake udaletxean edo kultura etxean, koloretakoak edo zuri-beltzekoak, 18 x 24 cm-koak, gutxienez. Gutun-azal baten aurkeztu behar dira, eta beste baten, egilearen datuak. Urriaren 20a da mugaeguna.

## Hitzorduak



**ANARI ETA SORKUN BAKARLARIEK KONTZERTUA EGINGO DUTE ARRASATEN |** Datorren egubakoitzean, hilaren 29an, egingo dute emanaldia 3.60 aretoan

Euskal Herriko emakumezko bi ahots pertsonaletariko batzuk dira Anari eta Sorkun, eta datorren egubakoitzean, hilak 29, biak entzuteko aukera paregabea izango da Arrasateko 3.60 aretoan.

Paralelismoak badituzte bakarlariok: disko bana aurkeztu zuten joan den urte bukaeran –Anarik *Zebra* atera zuen, bere hirugarren lana, eta Sorkunek, *Duna* izenekoa, bigarrena–; eta biek leial jarraitzen diote nork bere estilo nahastezinari: Anarik atmosfera misteriotsuak eta bakartiak sortzen ditu, eta Sorkunek rocka egiten du baina, batez ere *Duna*-n, saxoaren bidez giro berezia eratzen du.

**ZINEMA |**

**• *El señor de la guerra* filma emango dute Oñatin**
Gaur, astelehena, emango dute film hori kultura etxean, 19:30ean.

**• *La sombra de la sospecha* filmaren emanaldia Arrasaten**
Gaur, astelehena, emango dute Amaia antzokian, 20:30ean.

**• Zinema emanaldia egingo dute etzi Elgetan**
Etzi, eguaztena, film emanaldia egingo dute Espaloia antzokian, 21:30ean.

**LEHIAKETAK |**

**• Argazki zaharren lehiaketan parte har daiteke KZguneetan**
Eusko Jaurlaritzak Euskal Herriko 1975. urte aurreko argazki lehiaketa antolatu du. Helburua da garai bateko herriak, hiriak eta inguruneak zelakoak ziren berreskuratzea. Parte hartzeko aukera dago ere Debagoieneko KZguneetatik.

**IKASTAROAK |**

**• Arrasateko margo ikastaroan izenematea**
Gaur, astelehena, zabalduko dute Monterrongo ganbarako margo ikastaroan izena emateko epea. 120 euro dira, irailetik ekainera. Argibide gehiagorako edo izena emateko, jo kultura etxera (943 77 01 05 da telefonoa).

**• Hobetze mailako taila ikastaroa emango dute**
Hobetu gura dutenendako taila ikastaroa antolatu du Arrasateko Tailaginen Elkarteak urriaren 17tik aurrera (30 ordu). Izenematea, honako telefonoetan: 645 70 59 13 edo 943 79 40 79 (Felix).

**• Ume eta gaztetxoendako margo ikastaroa Bergaran**
6tik 12 urte bitarteko ume eta gaztetxoendako margo eta marrazketa ikastaroa antolatu du Beart elkarteak, urriaren 7an hasita. Izenematea zabalik dago honako telefonoetan: 653 71 53 82 (Mayra) edo 665 70 31 75 (Oihana).

**ERAKUSKETAK |**

**• Unai Azkarateren margolan erakusketa Eskoriatzan**
Unai Azkaratek (Bergara, 1980) margolan erakusketa du Eskoriatzako Inkernu. Zortzi margolan dira, tamaina desberdinekoak. *Collage*-ak dira, eta gai aldetik, abstraktuak, aurreko lan batzuetan inspiratutakoak.

**• Kirol argazki lehiaketako lanen erakusketa ipiniko dute**
Bergarako Udal Kirol Zerbitzuak eta Pol-Pol argazki taldeak antolatutako kirol argazki lehiaketako lanak erakusketan daude Aroztegi aretoan. Urrira bitartean egongo da zabalik.

**• Bergarako Ageriko Margo lehiaketako lanak**
33. Ageriko Margo lehiaketako lanak ikusteko parada dago irailaren 30era bitartean kultura etxeko erakusketa aretoan. Beart elkarteak antolatzen du. Ordutegia: astegunetan, 18:00-21:00; zapatuetan, 12:00-14:00.

**• Oñatiko ermiten eta dorretxeen erreplikak**
Joxe Urtzelaik Oñatiko ermiten eta dorretxeen egurrezko erreplikak, erliebezko koadroak eta maketak dauzka erakusketan hilaren 28ra bitartean, kultura etxean. Bisita ordutegia hau da: egunero, 18:30etik 20:30era. 33. Ageriko Margo lehiaketako lanak ikusteko parada dago irailaren 30era bitartean kultura etxeko erakusketa aretoan. Beart elkarteak antolatzen du. Ordutegia: astegunetan, 18:00-21:00; zapatuetan, 12:00-14:00.

**IKUSKIZUNAK |**

**• Aukeran dantza taldearen ikuskizun berria Elgetan**
Edu Muruamendiaratz bergararrak zuzendutako Aukeran dantza taldeak *Bideak* lana estreinatuko du. Debagoieneko estreinaldia da. Espaloia antzokian egingo dute emanaldia hilaren 29an, egubakoitza, 22:30ean. Sarrerak salgai daude antzokian bertan.

## Eguraldia



Astelehena, 25 | Martitzena, 26 | Eguaztena, 27 | Eguena, 28 | Egubakoitza, 29

### Kaskar hasi, baina eguaztenetik aurrera hobetzen joango da

Mendebaldeko haizeak giro eskasa ekarriko du gaur. Goiz partean laino ugari egongo da eta arratsaldean euria ekarriko dute. Tenperaturari dagokionez, fresko egingo du. Dena den, okertzea ez da nabarmena izango. Bihar, martitzena, antzera egingo du, laino ugari, euria eta tenperatura ere fresko mantenduko da. Eguaztenean apur bat igoko da tenperatura eta eguzki izpiak ikusten hasiko gara.

Eguenean hoberantz egiten jarraituko du. Tenperaturak gorako bidean jarraituko du eta eguzkia nabarmentzen joango da. Egubakoitzean giro polita izango dugu.

## Guardiako farmaziak

**ARRASATE**

| | | |
|---|---|---|
| **Astelehena, 25** | Zabala | Zarugalde, 42 (943 77 16 30) |
| **Martitzena, 26** | Azkoaga | Ferrerias, 1 (943 79 15 15) |
| **Eguaztena, 27** | Azkoaga | Iturriotz, 17 (943 79 79 99) |
| **Eguena, 28** | Corcuera | Maisu Aranbarri, 1 (943 79 22 26) |
| **Egubakoitza, 29** | irizar | Erguin, 11 (943 79 12 39) |

**BERGARA**

| | | |
|---|---|---|
| **Astelehena, 25** | Estella | Matxiategi, 5 (943 76 19 63) |
| **Martitzena, 26** | Mozos | Iparragirre, 2 (943 76 12 15) |
| **Eguaztena, 27** | Urritikoetxea | Oxirondo, 4 (943 76 11 74) |
| **Eguena, 28** | Zabala | Barrenkalea, 25 (943 76 16 87) |
| **Egubakoitza, 29** | Guallar | San Antonio, 5 (943 76 11 05) |

**OÑATI**

| | | |
|---|---|---|
| **Astelehena, 25** | Juldain | Kale Barria, 6 (943 78 11 28) |
| **Martitzena, 26** | Juldain | Kale Barria, 6 (943 78 11 28) |
| **Eguaztena, 27** | Anduaga | San Lorentzo, 3 (943 78 21 16) |
| **Eguena, 28** | Anduaga | San Lorentzo, 3 (943 78 21 16) |
| **Egubakoitza, 29** | Anduaga | San Lorentzo, 3 (943 78 21 16) |

**ARETXABALETA**

| | | |
|---|---|---|
| **Astelehena, 25** | Iturralde | Belorrieta, 1 (943 08 11 43) |
| **Martitzena, 26** | Iturralde | Belorrieta, 1 (943 08 11 43) |
| **Eguaztena, 27** | Iturralde | Belorrieta, 1 (943 08 11 43) |
| **Eguena, 28** | Iturralde | Belorrieta, 1 (943 08 11 43) |
| **Egubakoitza, 29** | Iturralde | Belorrieta, 1 (943 08 11 43) |

## Telefono jakingarriak

((112))
SOS DEIAK

**OSASUNA / LARRIALDIAK**

| | |
|---|---|
| OSAKIDETZA (Larrial.) | 943 46 11 11 |
| DYA (Orokorra) | 943 46 46 22 |
| DYA (Antzuola) | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria | 943 22 22 22 |
| Suhiltzaileak | 943 78 28 00 |
| Ertzaintza | |
| Arrasate | 943 79 71 99 |
| Bergara | 943 53 47 20 |
| Osasun Etxeak | |
| Arrasateko Ospital. | 943 03 53 00 |
| Antzuola | 943 76 62 23 |
| Aramaio | 945 44 53 40 |
| Aretxabaleta | 943 71 19 59 |
| Bergara | 943 03 54 00 |
| Elgeta | 943 03 54 00 |
| Eskoriatza | 943 71 44 52 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 03 54 30 |
| Hies Ekimena | 943 79 26 99 |
| Udaltzaingoak | |
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aramaio | 945 44 50 16 |
| Arrasate | 943 79 14 39 |
| Aretxabaleta | 943 71 18 63 |
| Bergara | 943 77 91 06 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |

**GARRAIOAK**

| | |
|---|---|
| Eusko Trenbideak | 902 54 32 10 |
| PESA | 902 10 12 10 |
| Taxiak | |
| Antzuola | 943 76 61 81 |
| Arrasate | 943 79 12 22 |
| Aramaio | 945 44 50 33 |
| Aretxabaleta | 943 77 12 64 |
| Bergara | 943 79 12 22 |
| Eskoriatza | 943 71 40 59 |
| Oñati | 943 78 03 65 |
| RENFE | 902 24 02 02 |

**DEBAGOIENA**

| | |
|---|---|
| Mankomunitatea | 943 79 33 99 |
| Hiltegia (Zubillaga) | 943 78 15 12 |
| Mendi nekazaritza elk. | 943 76 25 47 |
| Nekazaritza Ganbera | 943 76 10 15 |
| Zerga Bulegoa | 943 76 58 63 |
| Euskara Taldeak | |
| Debagune | 943 77 12 28 |
| AED / Arrasate | 943 71 21 17 |
| Axtroki / Eskoriatza | 943 71 54 34 |
| Goibeko / Elgeta | 943 78 90 85 |
| Loramendi / Aretx. | 943 77 09 70 |
| Idolaz / Antzuola | 943 78 70 56 |
| Jardun / Bergara | 943 76 08 19 |
| Laixan / Oñati | 943 71 63 11 |
| Txirritola / Aram. | 945 44 52 66 |
| Hondakindegi Alternatiboak | |
| Arrasate | 943 77 11 43 |
| Bergara | 943 76 44 42 |
| Oñati | 943 78 36 67 |
| Kiroldegiak | |
| Aramaio | 945 44 53 35 |
| Arrasate | 943 77 16 77 |
| Aretxabaleta | 943 71 26 28 |
| Bergara | 943 76 56 41 |
| Elgeta | 943 76 82 84 |
| Eskoriatza | 943 71 53 28 |
| Oñati | 943 71 63 75 |
| Kultura Etxeak | |
| Antzuola | 943 76 60 65 |
| Aramaio | 945 44 53 74 |
| Arrasate | 943 77 01 05 |
| Aretxabaleta | 943 71 10 27 |
| Bergara | 943 77 91 58 |
| Eskoriatza | 943 71 46 88 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 03 53 |
| Udalak | |
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aramaio | 945 44 50 16 |
| Arrasate | 943 79 09 00 |
| Aretxabaleta | 943 71 18 62 |
| Bergara | 943 77 91 00 |
| Elgeta | 943 76 80 22 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |

## Zozketak

**BONOLOTOA**

Astelehena, 18
**2 • 11 • 17 • 21 • 24 • 42**
Osagarria: 8 | Itzulketa: 6

Martitzena, 19
**4 • 12 • 13 • 14 • 19 • 20**
Osagarria: 16 | Itzulketa: 0

Eguaztena, 20
**1 • 12 • 31 • 42 • 43 • 46**
Osagarria: 11 | Itzulketa: 2

Egubakoitza, 22
**3 • 22 • 24 • 35 • 40 • 48**
Osagarria: 45 | Itzulketa: 2

**ONCE**

| | |
|---|---|
| Astelehena, 18 | **99.037** |
| Martitzena, 19 | **91.942** |
| Eguaztena, 20 | **13.947** |
| Eguena, 21 | **05.751** |
| Egubakoitza, 22 | **22.609** |

Kupoitzarra (002 seriea)

**LOTERIA PRIMITIBOA**

Eguena, 21
**6 • 13 • 18 • 33 • 34 • 41**
Osagarria: 42 | Itzulketa: 7

Zapatua, 23
**10 • 17 • 25 • 34 • 37 • 44**
Osagarria: 13 | Itzulketa: 7

## Gazte zerbitzuak

**DIRULAGUNTZAK |**

**• Nekazaritza.** Zizurkilgo Udala. Nekazaritza teknikari plaza bat betetzeko oposizio-lehiaketa. Epea: urriaren 4a.

**• Pianoko irakasle laguntzailea.** Irungo Udala. Irungo Musikaren Udal Fundaziorako Pianoko irakasle laguntzaile plaza bat lehiaketa-oposizio bidez. Piano irakasle titulua, 1966. urteko planekoa edo baliokidea. 3. HE. Epea: urriaren 9a.

**DIRULAGUNTZAK |**

**• Kontsumoa.** Eusko Jaurlaritza. Kontsumo gaietan prestatu eta ikertzeko bost beka. Epea: urriaren 16a.

**• Garraioa.** Eusko Jaurlaritza. 2006-2007 ikasturteko garraio gastuak ordaintzeko laguntzak ikasle ezgaituentzat. Epea: urriaren 16a.

**• AEBetan.** Fulbright batzordea. Ameriketako Estatu Batuetako unibertsitate edo fakultateetan gaztelania irakasteko eta, aldi berean, bizpahiru irakasgai ikasteko bekak. Filologia Hispanikoko edo Ingeleseko lizentziadun izatea; ingeles-maila ona. Epea: azaroaren 10a.

**• Emakumeentzat.** *Glamour* aldizkaria. Gradu ondoko ikasketak Espainian egiteko Glamour bekak. Emakumezkoa izatea, lizentziadunak edo goi-mailako tituludunak eta 1976-05-30a baino geroago jaiotakoa izatea. Epea: urriaren 15a.

**DIRULAGUNTZAK |**

**• Langabeak.** Ordenagailuen mantentze-lanei, TCP/IP sareei eta Interneti buruzko ikastaroa Donostian. Epea: urriaren 3a.

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3. 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea. 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4. 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

Bertan salgai
ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

**Antzuola:**
•Altzarte okindegia
•Martin okindegia
**Elgeta:**
•Kioskoa
**Bergara:**
•Bolintxo okindegia
•Ogizun okindegia
•Konde okindegia
•Olabe okindegia
•Mizpildi okindegia
•Plazako Kioskoa
•Txurrerua Kioskoa
**Arrasate:**
•Eroski merkatal guneko prentsa txokoa
•Balantzategi kioskoa
•Portaloiko kioskoa
•Usue paper denda
•Bolintxo Okindegia
•Kurruxko okindegia
**Aretxabaleta:**
•Errasti kioskoa
•Ibarra estankoa
**Eskoriatza:**
•Dorleta liburudenda
**Leintz Gatzaga:**
•Labidea
**Aramaixo:**
•Plazako kioskoa
**Oñati:**
•Haritza Kioskoa
•Ibarrondo Kioskoa
•Eskolatxo okindegia
•Arantxa okindegia
•Irizar okindegia
•Ogibarri okindegia
•Olakua okindegia
•San Lorentzo okindegia
•Errota okindegia

## Zorion agurrak



ARRASATE
**Eider Alonso**
Irailaren 10ean, 3 urte. Zorionak! Arizmendiko Sanvi Txikiko lagunak.



ARRASATE
**Marina Abarrategi**
Irailaren 23an, 4 urte. Zorionak! Arizmendiko Sanvi Txikiko lagunak.



ARRASATE
**Beatriz Rangel**
Irailaren 26an, 4 urte. Zorionak! Arizmendiko Sanvi Txikiko lagunak.



ARRASATE
**Maren Markaide**
Irailaren 27an. Zorionak eta muxu handi bat, etxekoen partetik.



ARRASATE
**Oier Aliaga**
Urriaren 2an, urtebetetzea. Zorionak! Koadrilakoak.



ARRASATE
**Imanol Juaristi**
Urriaren 10ean, 3 urte. Zorionak eta urte askotarako, familiaren partetik.



ARETXABALETA
**Nerea Altube**
Irailaren 27an. Zorionak, izeba, eta muxu handi bat. Ilobak.



ARETXABALETA
**Maider Gonzalez**
Irailaren 27an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Etxekoak.



BERGARA
**Elene Ciarsolo**
Irailaren 21ean, urte bat. Zorionak eta urte askotarako etxekoen partetik!



BERGARA
**Martxel Olabarrieta**
Irailaren 27an, 2 urte. Zorionak eta urte askotarako, etxekoen partetik!



BERGARA
**Nerea Aginagalde**
Irailaren 30ean, 8 urte. Zorionak eta urte askotarako, etxekoen partetik!



ESKORIATZA
**Oihana Ezeiza**
Irailaren 24an, 2 urte. Zorionak eta urte askotarako, etxekoen partetik!

**Zorionak!**

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ASTELEHENEKO GOIENKARIAren bidez!
Ekar ezazu bere argazkia, eta emaiozu ezusteko ederra!

## Hildakoak

**Idoia Leniz Azkarate** | Donostian, irailaren 22an. 42 urte.

**ESKELAK**
ASTELEHENEKO
GOIENKARIAN

85 euro
**943 25 05 02**

ESKELA

**Idoia**
**Leniz Azkarate**

Donostian hil zen 2006ko irailaren 22an, 42 urte zituela.

Bergarako San Martin Agirre herri eskolako ikasle, guraso eta irakasleek bat egiten dute senideen saminarekin.

San Martin Agirre herri eskola

Bergaran, 2006ko irailaren 25ean.

## Jaiotakoak



**Oxel Blazquez Plazaola**
Oñati • 4,070 Kg. Irailaren 17a. Gurasoak: Eider (Oñati) eta Dabid (Oñati). Argazkian aita eta amarekin.



**Kaiet Armendaritz Lete**
Eskoriatza • 3,620 Kg. Irailaren 18a. Gurasoak: Susana (Arrasate) eta Aitor (Eskoriatza). Argazkian Magali arrebarekin.



**Jon Larrañaga Ormaetxea**
Aretxabaleta • 3,800 Kg. Irailaren 19a. Gurasoak: Bego (Arrasate) eta Josu (Arrasate). Argazkian umea kuman.



**Sebastian Rodriguez**
Arrasate • 3,300 Kg. Irailaren 20a. Ama: Maby (Bolivia). Argazkian amarekin.



**Mikel Goikolea Arantzabal**
Arrasate • 3,950 Kg. Irailaren 21a. Gurasoak: Arantza (Arrasate) eta Fran (Eskoriatza). Argazkian amarekin.



**Elaia Larrañaga Mendiluzeta**
Aretxabaleta • 3,800 Kg. Irailaren 21a. Gurasoak: Naiara (Arrasate) eta Xabier (Arrasate). Argazkian amama Antonirekin.



**Leixuri Salegi Guijarro**
Eskoriatza • 2,930 Kg. Irailaren 21a. Gurasoak: Ana (Eskoriatza) eta Jose Mari (Eskoriatza). Argazkian amarekin.



**Maiu Etxeberria Benito**
Oñati • 3,990 Kg. Irailaren 21a. Gurasoak: Maider (Zarautz) eta Joseba (Oñati). Argazkian Aratz anaiarekin.



**Yago Da Silva Garcia**
Bergara • 3,180 Kg. Irailaren 23a. Gurasoak: Sonia (Bergara) eta Jose Angel (Eibar). Argazkian umea kuman.



**Iker Garcia Martin**
Oñati • 2,900 Kg. Irailaren 23a. Gurasoak: Isa (Oñati) eta Andres (Arrasate). Argazkian osaba Carlosekin.

Zoriondu ARRASATE IRRATIAn



**Ikaskideak, lagunak edo senitartekoak zoriondu nahi badituzu, ARRASATE IRRATIAk egunero ematen dizu aukera hori.**

**Bidali eskaria:** *irratia@goiena.com* helbidera edo deitu 943 71 17 31 telefonora.

Egunero, zorion agurren tartea ARRASATE IRRATIAn

FM107.7
ARRASATE IRRATIA



**Nagore Nieto Fernandez**
Bergara • 3,300 Kg. Irailaren 23a. Gurasoak: Cristina (Bergara) eta Enrique (Bergara). Argazkian umea kuman.

## Gaur irratian

### Arrasate Irratia

FM 107.7

**'Uda giroan'** | **10:00**

**Jon Odriozolari elkarrizketa eta Zinemaldia**

Euskaltel-Euskadi txirrindulari taldeko zuzendarietako bat izango da Jon Odriozola oñatiarra. Datorren denboraldirako asmoak azalduko dizkigu. Era berean, Zinemaldiaren berri emango du Edu Mendibil kazetariak.

### Oñati Irratia

FM 107.4

**'Eguerdiko saioa'** | **12:15**

**Artzain txakur txapelketa**

Artzain txakur txapelketa jokatuko da domekan Oñatin. 47. ekitaldia da aurtengoa eta txapelketak emandakoa aztertuko dute eguerdiko irratsaioan. Irabazlearen, antolatzaileen eta ikusleen iritziak jasoko dituzte, besteak beste.

### Euskadi Irratia

FM 104.4

**'Faktoria'** | **10:30**

**Donostiako Zinemaldiaren jarraipena**

### Radio Euskadi

FM 98.2

**'Boulevard'** | **10:40**

**Bruesa GBC saskibaloi taldea, liga atarian**

### Herri Irratia

FM 99.8

**'Loiolako porrusaldan'** | **12:00**

**Elegune proiektuaren aurkezpena**

## GOITB programazioa

### Astelehena, 25



**Jon Odriozola, 'Harmailatik' saioan**
**22:15**
Jon Odriozola izango da Euskaltel taldeko zuzendarietako bat. Julen Iriondorekin solasean izango da gaur, *Harmailatik* saioan.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Bihurkorrak.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Behazulo.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Albiste aurrerapena.
**15:00** Munduari bueltaka.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Ilunpean.
**16:15** Klip@.
**16:45** Albiste aurrerapena.
**17:00** Erreportajea.
**17:30** Motzean.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Berbaire.
**18:15** Klip@ eta MKT.
**18:45** Albiste aurrerapena.
**19:00** Klip@.
**19:15** 16 mm.
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunak: Bihurkorrak.
**20:45** Gaurkoak.
**20:47** Harmailatik. Asteburuko futbol emaitzen errepasoa.
**21:15** Gatza eta berakatza.
**21:30** MKT.
**21:45** Berriak.
**22:15** Harmailatik.
**22:45** Gaurkoak.
**22:47** Erreportajea.
**23:15** Izan ziren.
**23:30** Eltze beroa.
**23:45** Berriak.
**00:15** Emisio amaiera.

### Martitzena, 26



**'Gatza eta berakatza': Arteaga jatetxea**
**21:15**
Igor Ezpeleta Garagartzako Arteaga jatetxeko sukaldariak piper beteak txipiroiekin gertatzen erakutsiko digu gaurko saioan.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Nonochan.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Jazz mintegia.
**14:15** Klip@.
**14:45** Albiste aurrerapena.
**15:00** Elkartasunaren bideak.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Harmailatik.
**16:15** Klip@.
**16:45** Albisteak.
**17:00** Jazz mintegia.
**17:30** Danbaka.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Behazulo.
**18:15** Eltze beroa.
**18:45** Albisteak.
**19:00** Klip@.
**19:15** Harmailatik.
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunak: Nonochan.
**20:45** Gaurkoak.
**20:47** 16mm.
**21:15** Gatza eta berakatza, sukaldaritza saioa.
**21:30** Izan ziren.
**21:45** Berriak.
**22:15** Berbaire.
**22:45** Gaurkoak.
**22:47** Behazulo.
**23:15** MKT.
**23:30** Eltze beroa.
**23:45** Berriak.
**00:15** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 27



**Debagoieneko albisteak**
**20:45**
Ibarrean gertatuko albisterik aipagarrienen berri jasoko duzue GOITBko albistegietan. Goiatz Aranak eta Julen Iriondok (irudian) aurkeztuta.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Berbaire.
**14:15** Danbaka.
**14:45** Albiste aurrerapena.
**15:00** Teknopolis.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** 16mm.
**16:15** Klip@.
**16:45** Albiste aurrerapena.
**17:00** Berbaire.
**17:30** Zera dio.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** 16 mm.
**16:15** Klip@.
**16:45** Albiste aurrerapena.
**17:00** Berbaire.
**17:30** Motzean.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Sustraia.
**18:15** Teknopolis.
**18:45** Albiste aurrerapena.
**19:00** Klip@.
**19:15** Erreportajea.
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunak.
**20:45** Gaurkoak.
**20:47** Erreportajea
**21:15** Gatza eta berakatza.
**21:30** MKT.
**21:45** Berriak.
**22:15** Ilunpean.
**22:45** Gaurkoak.
**22:47** Elkartasunaren bideak.
**23:15** Izan ziren.
**23:30** Eltze beroa.
**23:45** Berriak.
**00:15** Emisio amaiera.

### Eguena, 28



**Ane Muñozen 'Basurdea' film laburra**
**22:47**
Ane Muñoz hondarribiarraren *Basurdea* film laburra emango dute gaur. Era berean, Amagoia Lasagabasterrek Muñoz elkarrizketatu du.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Nonochan.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Harmailatik.
**14:15** Klip@.
**14:45** Albiste aurrerapena.
**15:00** Sustraia.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Behazuloa.
**16:15** Klip@.
**16:45** Albiste aurrerapena.
**17:00** Jazz.
**17:30** MKT musika.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Elkartasun bideak.
**18:15** Iparrorratza.
**18:45** Albiste aurrerapena.
**19:00** Klip@.
**19:15** Erreportajea.
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunak: Nonochan.
**20:45** Gaurkoak.
**20:47** Teknopolis.
**21:15** Gatza eta berakatza, sukaldaritza saioa.
**21:30** MKT musika saioa.
**21:45** Berriak.
**22:15** Berbaire.
**22:45** Gaurkoak.
**22:47** 16mm.
**23:15** MKT.
**23:30** Eltze beroa, sukaldaritza saioa.
**23:45** Berriak.
**00:15** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 29



**Rafa Rueda 'Ilunpean' saioan**
**22:15**
Rafa Rueda musikaria izango da Oihana Elortza kazetariaren gonbidatua. Rafa Ruedaren ibilbidea gertutik ezagutzeko aukera izango duzue.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Bihurkorrak.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Teknopolis.
**14:15** MKT .
**14:45** Berriak.
**15:00** Iparrorratza.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Ilunpean.
**16:15** Klip@.
**16:45** Berriak.
**17:00** Erreortajea.
**17:30** Eltze beroa.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** 16mm.
**18:15** Teknopolis.
**18:45** Berriak.
**19:00** Klip@.
**19:15** Jazz mintegia.
**19:45** Berriak.
**20:15** Bihurkorrak.
**20:45** Gaurkoak.
**20:47** Behazulo.
**21:15** Gatza eta berakatza.
**21:30** MKT.
**21:45** Berriak.
**22:15** Ilunpean.
**22:45** Gaurkoak.
**22:47** Sustraia.
**23:15** Izan ziren.
**23:30** Eltze beroa, sukaldaritza saioa.
**23:45** Berriak.
**00:15** Amaiera.

## Kamera aurrean



**"Ez zen gure lehentasuna Arrasaten denda irekitzea, baina herrian dagoen hutsunea betetzea erabaki dugu"**

**JON JAKA** |
ELKAR FUNDAZIOKO IDAZKARIA
**Berriak**, 2006-09-21



**"Jokin Zaitegik sinisten zuen Lizardiren nahian: larre euskarak edozertarako balio zezakeela"**

**MIREN AZKARATE** |
KULTURA SAILBURUA
**Berriak**, 2006-09-21

Marrazki bizidunak

**GAZTETXOENDAKO**
*Snorkeldarrak, Nonochan* eta *Bihurkorrak* marrazki bizidunak.

**EGUNERO, 13:20AN ETA 20:15EAN**

*Ikustekoa!*



Irailaren 25a: 100 zozketa

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen
**txokoa**

# Zorionak irabazleoi!

Gaur, irailak 25, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
*Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!**

## BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

**Harpidedun egiteko:**

**902 36 38 51**
Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 18:30etara.

**Harpidetza kuota:**

**24 euro**
**2006** bukaera harte.

ASTELEHENEKO **Goienkaria**
astelehenean, aste bukaera osoa

100 zozketa
saridunak

Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.
**Zure izena zerrendan badago,**
**ZORIONAK!**

**Gonbidapen bat Donostiako AQUARIUMa bisitatzeko. (Saridunari bi emango zaizkio).**
- Itziar Ibarra Indakoetxea (Arrasate)

**ELGETAKO ESPALOIAN izango den AUKERAN dantza taldearen estreinaldiarako gonbidapen bat.**
- Bittor Alkorta Tartas (Bergara)







## Urriaren 2ko sariak




**PAMIELA**
argitaletxeko
liburu sorta bat.

ASTELEHENEKO
**Goienkaria**

**Argitaratzailea**
Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea
Nafarroa etorbidea z/g • 20500 Arrasate

**Egoitza nagusia:** **Bergara** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila
Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13 • *Posta-e: goienkaria@goiena.com*
**Ordezkaritzak:** **Arrasate 20500 Otalora Lizentziaduna 31**
Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 *Posta-e: arrasatepress@goiena.com*
**Aretxabaleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila**
Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
**Publizitatea:** **Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2**
Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • *Posta-e: publi@goiena.com*
**Lege Gordailua:** S.S.-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542
**HARPIDETZA:** 943 79 21 00 • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*

ASTELEHENA
2006ko
irailaren
25a

Goizean: lainoa
Arratsaldean: euria

# Hamarrekoa

**SEBASTIAN LIZASO** | BERTSOLARIA

## "Araotzen egin nuen lehen plaza 15 urterekin, baina ez nion inori ezer esan"



JOSETXO ARANTZABAL

**Oñatiko San Migel jaietan urtero egiten dute bertso saioa eta askotan etorri izan da saio horretara Sebastian Lizaso. Aurten ere etorri da. Gaztea zela hasi zen bertsotan. Lehen saioak Santa eskean eta auzoan egin zituen eta 15 urterekin egin zuen lehen plaza, Araotzen. Noiz arte jarraituko duen berak ere ez daki. Aita eta semea ere bertsolariak dira.**

Oihana Elortza

**1. Araotzen egin ei zenuen lehen plaza bertsotan. Nola gogoratzen duzu egun hura?** Aspaldi izan zen, orain dela 33 urte inguru. Lagunekin Sandailira joan nintzen, eta, kasualitatez, Araozko jaiak ziren. Benito Barrena han zebilen eta haren ondoan biok egin genuen bertsotan plazan.

**2. Zergatik ez zenion inori esan?** Handik denbora batera Oñatira joan zen aita eta argazki bat eman zioten niri emateko: Benito eta biok geunden argazkian bertsotan. Aitak argazkia entregatu zidanean azaldu gura nion gertatutakoa, baina ez zidan ezer galdetu. Harrezkero, lasai joan nintzen plazetara bertsotan egitera.

**3. Sarri etortzen zara Oñatira. Lagun asko dituzu?** Bai, baditut lagunak, baina bisitan bakarrik ez, lanera ere joaten naiz hara urtean bizpahiru aldiz.

**4. Noiz egon zara azkeneko Urbian?** Abuztuko azken astelehenean. Urriaren hasieran berriro noa lagun koadrila batekin eta urriaren 12an berriro, urteroko bertso saioa egitera fondara. Andoni Egaña, Iñaki Murua eta hirurok goaz aurten.

**5. Egin dizu minik tabakoaren aurkako legeak?** Ez. Erretzen dudanean disfrutatu egiten dut, baina ez dudanean erretzen ez dut sufritzen.

**6. Polikiago gidatzen duzu puntuen legea indarrean dagoenetik?** Bai, gehienok bezala. Hori bakarrik ez, segurtasun uhala ere beti jartzen dut orain, eta lehen oso gutxitan. Oraindik ez didate punturik kendu.

**7. Zenbat balio zuen txikitoak Landetako tabernan?** Ez naiz oroitzen, baina ondo gogoan dut eguneko menuak 35 pezeta balio zuela. Jende asko etortzen zen bazkaltzera, industria-gune ondoan zegoen-eta.

**8. Noiztik duzu bizarra?** Aspalditik, soldadutzan utzi nuen.

**9. Non egin zenuen soldadutza?** Kanarietan. Egia esan, ez dut oso oroitzapen txarrik. Lagun asko egin nituen, hemendik joandako arrantzale asko, tartean. Hemen denboraldi eskasa zuten eta Orioko eta beste herrietako arrantzale asko Kanarietara joan ziren arrantzan egitera.

**10. Esaten duten besteko harroak zarete azpeitiarrok?** Ez bilbotarrak bestekoak. Uste dut gure harro puntua ona dela, adarra jotzea gustatzen zaigu, eta hortik dator fama.



### Biharamuna

Arantzazu Ezkibel

## Bertsoz zein motorrean

Denetariko ekitaldiz josia aurkeztu zaigu asteburu hau ibarrean. Zapatuan, lehen mailako bertsolariak izan genituen Zubikoa kiroldegian. Txandalak ezin aktualago jarraitzen duela frogatzen **Amets Arzallus** izan genuen Oñatin. Txandala eta prostitutaren azala jantzi eta ziztada gogoangarriak oparitu zizkien Oñatiko entzuleei. Batzuk, txandala eta beste batzuek, lumazko lepokoa, baina, beti ere, emakumezko ahotsetan. Egubakoitzean izan genituen-eta Arrasaten **Iratxe Ibarra**, **Onintza Enbeita** eta **Oihane Perea** bertsolariak, emakumeak indartsu eta esateko askorekin datozela erakutsiz.

Neskak ostikoka ere ikusi ditugu asteburuan. Atzo, **Bergarako** eta **Mondrako neskak** nor baino nor gehiago aritu ziren baloiaren atzetik. Jarraian, jarri ditzagun begiak, asteburuari errepasoa emanez, Elgetan. Han ere lagun dezente bildu zen motor zaleen topaketan. Lambrettak eta Vespak maite dituztenak euren *nostalgia* bizitzen. Gizon ugari eta emakume franko, hori bai, beti *pakete* moduan. Harritzekoa, hainbeste eboluzio ikusita! Nostalgia kontuak izango dira, iragan garaietako ohiturak...

Emakume ahotsekin hasita, emakume ahotsekin amaitu behar. Datorren astean **Anari** eta **Sorkun** bakarlariak Arrasateko 3.60 aretoan izango ditugu. Hauek ez dakigu Vespan, oinez edo autoan etorriko diren baina euren kabuz gidatzen dutela argi dago. Gorriz apuntatu hitzordu hau.




Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

5767 zenbakira

SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEZa

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)
Abestiaren izena | KODEA

1,2,3,4...Real!! | REAL
Alboka | ALBOKA
Athletic luep!! | IEUP
Buztan bertsoa | BERTSO
Hartu...Aitaren ta semea.. | AITAREN
Hartu...Ansar | ANSAR
Hartu...Argentinarra | ARGEN
Hartu...Mexikarra | MEXIKO
Hartu...Miamol! | MIAMOL
Independentzia! | INDEPEN
Irrintzia | IRRINTZI
Jotake irabazi arte! | JOTAKE
Milazu! (pilota) | MILAZU
Suprinua | SUPRINU
Tobera | TOBERA
Txalaparta | TXALA
Txanbela | TXANBERA
Txoootx | TXOTX

LOGOAK (SMS 1)
KODEA

DEPOR.IZENA. ZENBAKIA
OSAUNA.IZENA. ZENBAKIA
BILBAO.IZENA. ZENBAKIA
REAL.IZENA. ZENBAKIA

ANOETA1, MENDI2, ARCO, SADAR1, IPURUA, EIBARPOOL
BELAK, ZORI3, IKURRI3, POPATIK1, AIZKORAK, ADARIAK
ZORI1, ZORI4, KALABERA1, POPATIK2, EGUZKILORE3, ELORAN
TOPA, TITULUA, MUSKARIA, SATANAS, ARRANAK, IDIAK

OHARRAK
1. BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaitez zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora./ * Vodafone: deitu 123-ra./ * Movistar: deitu 609-ra.
3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.